

XII. urtea - 144. zk. 2004ko abendua

> **GEU**
GASTEIZKO
EUSKALDUNOK
ALDIZKARIA

cocidito madrileño antzezlanak

eloi beato
gorka aginagalde
josean de miguel

idoia zabaleta dantzaria
gau bakar bat

pou
anaiak

Fundación Sancho de Salazar y Sotomayor

alvaro glz
de galdeano

gari

araba
batailoia

haur eta gazte
literatura

SEX



PITILIN GORRI

ZURE DENDA EROTIKOA

jostailu erotikoak

bideo kluba

filmak

artikulu pornoak

...

GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

IRUN

BERRITASUNA!!

MUNDUKO

BIGARREN DENDA:

2000 PELIKULATIK GORA

ZURE ESKU

KABINETAN

Zorionak eta
Urte Berri On



gabon zoriontsuak



GEU Elkartearen ekimenez
sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina,
bideratua eta kudeatua


Erredakzioa:
Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008
Gasteiz
Tfnoa. eta Faxa:
945 22 21 53
e-mail:
geugaste@grn.es

Zuzendaria:
estibx breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea:
josune velez de mendizabal, edorta sanz,
edurne begiristain, estibx breñas eta
david alvez
Kazetariak:
josune velez de mendizabal, edurne
begiristain, saioa fdz. de arangiz
Argazkiak:
edorta sanz
Bestelako irudiak-bilaketa:
estibx breñas glz. de zarate, david alvez
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:
estibx breñas glz. de zarate
Itzulpenak:
edurne begiristain, estibx breñas, aztiri
Maketa:
patirke sanz eta david alvez
logoa:
io grafix
komikia:
iñigo sarasola
Kolaboratzaileak ale honetan:
roberto oñederra, emakumeok kolektiboa,
karnele jaio, maite lekue, jon zubiaur,
txema flores, erlantz urtasun eta
gamarrako ostalaritza eskola.
Publizitatea eta Banaketa:
edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila:
edurne begiristain, estibx breñas glz. de
zarate eta maite lekue
Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500
LG: VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Franko Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Arabako
Foru Aldundia



CAJAL LAMINA
EUSKALDUNO KIDIA

GEU ALDIZKARIA zure
etxean jasotzeko bidea
HARPIDETZA da.
Urte osoko kuota: **18 euro.**
(telefonoz - e-mailez)

AHORIK-AHO



7-10

eloi beato, gorka
aginagalde, josean de
miguel: "cocidito
madrileño" antzezlan

14-15

pou anaiak



11-13

idoia zabaleta
dantzari &
koreografoa: "gau
bakar bat"



16

alvaro glz de galdeano



GAIKA

18-19

haur eta gazte
literatura.
xabier etxaniz



20-21

"araba, oi
araba!".
koldo
azkue



23

euskaltasunean lagun

HAN-HEMENKA

-iritzia (4-5)

- roberto oñederra
- emakumeok kolektiboa

-kaleak dio (6)

gabonak & ohiturak

-idazleen zutabea (6)

karnele jaio

KULTURASIALDIARI SO

-AGENDA (24)

-KOMIKIA (25)

-HISTORIA ZERTZELADAK (27)

Gasteizko setioa. txema flores

-ARTE TXOKOA (28-29)

gari: 0-tik

-BIDAIA (30)

afganistango emakumeak euskal herrian

-ARABA BIXOTZIAN (30)

jon zubiaur

-BERTAKOARI SO! (31)

erlantz urtasun

-ERREZETA (31)

idi isats krepineta

-GEU & 555 harpidetza kanpaina (32-33)

-GEUren ekintzak (34)

Azala ...

eloi beatoen zuzendaritzapean eta, besteak
beste, gorka aginagalde eta josean de miguel
aktore gasteiztarrak banaketan, "cocidito
madrileño" antzezlan abian, madrilgo lapikokoari
umorez eutsiz.



argazkia: © ruben argote

~Radio Vitoria 70 urte, erronkaz erronka~



♦ Roberto Oñederra

Radio Vitoria-ko emisio eta produkzioburua

Radio Vitoria 1934ko udazkenean jalgi zen plazara. Ordurako, Donostiako irratiak 9 urte zituen. Estatuan, Bartzelonakoa izan zen aurrena. Gurea 64.a. Hori bai, Gasteizera mugatua baina Arabako lehena. 20 urtetan ez zuen aurkaririk izan. Nik irratia, 50 urte bete aurretiko urtean ezagutu nuen. EITBren parte zen jada. Zazpigarren alabaren dote preziatua. Diktaduraren osteko Jaurlaritzak esku zabalik hartu zuena. Autonomia Erkidegoaren ahotsa hedatzeko, zutik zeukan antena bakarra. Beste irratiak hutsetik sortu baitzituen. Eta bazen desioa, Estibalitzeko antena zela-medio, diasporara iristearena. Asmoak gogotik bete dira, egun Zeledonon jaitciera zuzenean, internetez, munduko edozein zokotatik jarrai baitaiteke.

Radio Vitoria, Prudencio M^a Berastegi kalean jaio zen, Sobron etxean. Antena baratzean zuelarik. Sortu eta, bi urte pasa baino lehen militar ankerrek gerra piztu zuten. Ez dugu orduko aipamen handirik. Baina faxistek, euren mezua ondorengo 40 urte luzeetan "Partea"ren bidez hedatu zuten.

Hurrengo erronka, bigarren gerra mundiala bukatuta, 1947an. Seirehun mila pezetan erosi zuen, Gasteizko Aurrezki Kutxaren eskutik. Hiru urte beranduago, Olagibel kalera egin zuen salto. 1954an SER kateari atxikirik 29 urteko ibilaldiari ekin zion. Urtebete lehenago Mugimendu Frankistek Radio Alava jarri zuen martxan. Arabako bigarrena. Radio Vitoria Frekuentzia Modulatuan emititzen, 1966an hasi zen.

Urteotan, gerora nire lankideak izango zirenek, egunero Gobernu Zibiletik pasa eta irakurri beharreko notizien, "bisto buenoa" jaso behar zuten. Egoera horretan, igande bazkalorduetan, Jose M^a Sedanok iparraldetik ekarritako diskoekin Fiesta Vasca irratsaioari ekin zion. Mila irratsaiotatik gora burutu eta hogeitaz iraun zuena. Guk lankideok Posta kaleko egoitzan ezagutu genituen. Eusko Jaurlaritzak esamesak eta polemika tarteko, Kutxari 1981ean erositako baitzion 55 milioitan. Hor izan ginen, EITBko lehen oposizioak burutuz, hiru bizkaitar gaztelerazko plazetan eta Iruñetik banentorren ere, euskarazkoak betetzeko bi gipuzkoar. Nahiko zalaparta eraginez eta trumilka, "una radio para vascos" egingo genueneko kezka. Gu iritsi eta hiru urtera 12 irrati ginen. Hamar urte geroago 38ra heldu zen konpetentzia eta, gaur egun 48tik gora gara.

Radio Vitoriak azken erronkari, orain bi urte heldu dio, estatuko lehen irrati digitala martxan jarritz. Eta zinez langileen erantzuna txapela kentzeko modukoa izan dela.

Eta euskararen erronka zertan den? Ba, ahaztu gabe Radio Vitoria izan zela euskarazko lezioak eskaintzen ere lehena, egun produkzioaren %5ean gabiltzala aipatu behar. Maritxu Berritsuk 18 urte bete ondoren utzi bagaitu ere, ongi etorriak Oihane Perearen "Uhinak Kantari" eta Elixabete Legardaren "Gaualdia" irratsaioak.

Datozen erronken aipamenak jaso bitartean segi ezazue beste 70 urtez gurea sintonizatzen.

~Emakumeok~

→ EMAKUMEOK KOLEKTIBOA

Emakumeok oihu bat da: kexatzeko eta altxatzeko oihu bat, batez ere. Baita mina eta biktimekiko elkartasuna adierazteko oihu bat ere.

2003ko martxoaren 8an sortu ginen, hainbat emakume elkartuta, bikotekideen eskuetan hiltzen ari ziren emakume kopuruaren gorakada kezkarriaz eta kalean herritarren protesta faltaz hizketan hasi ginen batean. Antolatu egin ginen. Hileko lehen ostegunetan elkarretaratzeko deia egitea erabaki genuen. Interesa izan zezaketen lagunen eta ezagunen telefono zenbakiak eta posta elektronikoak erabili genituen eta horrela, 2003ko apirilaren lehen ostegunetan jatorri, adin eta ideologia desberdineko emakume taldetxo batek gure lehen irtenaldia egin genuen.

Hiritarrei urtebetez elkarretaratzeko deia egin ondoren, laguntza gehiago bilatzea eta beste sektore batzuei egoera honen aurrean beren elkartasuna eta gaitzespena azaltzeko gonbidapena egitea erabaki genuen. Gaurdaino, uinbertsitateko irakasleek, idazleek, sindikalistek eta komunikabideetako langileek eman digute beren babesa. Taldeei elkarretaratzeetarako deia egiten jarraitzeko asmoa dugu.

Ikusezina ikusgai bilakatu dadin, eraso eta hilketa bakoitza kalean salatzea eta pixkanaka gizartearen inplikatzeko lortu nahi dugu.

Badakigu hau ez dela indarkeria matxistaren aurpegi gogor eta basatiena besterik eta egunero bizi ditugun beste hainbat indarkeria daudela, gutxiago nabarmentzen direlako erraz onartzen direnak (laneko jazarpena, bortxaketak, tratatu txar psikologikoak etab.); eta gizarteak indarkeria mota hori "erremediorik gabekoa" dela onartzeak kezkatzen gaitu.

2003. urtean emakumeen aurkako indarkeriagatik 100etik gora emakume hil ziren. Honako koadro hau 2004ko urtean Espainiako Estatuan gertatutako hilketei buruzkoa da:

Emakumeen aurkako indarkeriagatik hildakoak

Erakundeen informea

	2004ko hilketak
Familia barneko biktimak	81
• BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK	61
• BESTE FAMILIARTEKO BATZUK	20
Sexu erasoa	7
Emakumeen trafikoa eta prostituzioa	3
Zeharkako beste biktima batzuk	4
BIKTIMAK GUZTIRA	95
Datu nahikorik ez/ zenbatu gabekoak	10
Adin txikikoak (aurreko kategorietan zenbatutakoak)	14
Aurkitutako berriak guztira	111

Euskal Autonomia Erkidegoan, aurtien ia 3.000 dira salaketak jada eta horietatik 400 Araban egin dira. Hori arazoaren zati bat baino ez delakoan gaude, nahiz eta esparru honetan aurrerapausoak ematen arin garen, oraindik etxeetan gordeta gelditzen dena argitara irteten dena baino ugariagoa dela uste baitugu.

Erakundeek arazoaren konponbidean konpromisoa hartzea eta horretarako beharrezkoak diren neurriak martxan jartzea lortu nahi dugu: onartzen dituzten legeriak ezartzea, beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak jartzea, emakumeei eta erakundeei entzutea...

Gizartekotzeko instantziek (eskola, komunikabideak...) arazoari konponbidea errotik bilatzeko lan egin dezaten lortu nahi dugu.

Aldi berean, azaroaren 25eko Emakumeekiko Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguneko deialdian parte hartu genuen.

Horregatik guztiagatik, hileko lehen ostegunetan, arratsaldeko zortzietan Andre Maria Zuriaren plazan elkarretaratzeko gara, eta inplikatu eta besteekin batera norbere gaitzespena azaldu nahi duen herritar eta, bereziki, emakume oro gonbidatu nahi dugu.

itzulpena: azitiri

Badatoz gabonak

saioa fdz. de arangiz
& maite lekue

Gabonak heldu dira eta opari, turroi, argitxo, pinu eta gabon kantuez betetzen da gure bizitza ezinbestez.

Zoriontsu izateko garaia heldu da! Hala ere, egunerokotasunak agerian uzten du falta direnez eta faltan denaz oroitzeko beta ere gainean datorrela. Egiazki, senitartekoez inguratu eta gozatzeko aukera paregabea. Eguberri on guztioi!

1.-Nola ospatu ohi dituzu gabonak?

2.-Gustuko dituzun ospakizunak dira? Zergatik?

3.-Gabonak beste modu batez ospatzeko aukerarik ba ote?

Diego Carbajo, ikaslea

1. Aitaren herrira joan ohi gara gabonetan eta familia artean ospatzen ditugun jaiak dira.

2. Gustuko ditut gabonak, familiarekin egoteko aitzakia aparta. Urtean zehar ikusi ezin ditugunekin elkartzeko aukera ezin hobea bezala bizi ditut.

3. Bai, moduak izan badira. Kanpo eraginek behartzen gaituzte gabonak modu konkretu batean ospatzera, irudimena erabilita bestelako gabon-ospakizunak posible baitira.



Isabel Martinez de Ilardua, ostalaria

1. Ez dut gabonak ospatzeko ohitura handirik.

2. Ez, ez ditut jai egun hauek oso gustuko, ez daukat egun hauekiko sentipen berezirik. Kontsumismoa, azalkeria eta hipokresia ikusten dut gabonen atzean.

3. Oporrak izatekotan kanpora joatea da irtenbide bikaina.



Xabier Ruiz, ikaslea

1. Familiarekin ospatzen ditut gabon egunak, afaritan, karta joko eta beste hainbat jolas artean.

2. Bai, gustuko ditut gabon-ospakizunak. Gure egunerokotasunean lagunekin ospatu ohi ditugu jai egunak. Noizbehinka familiarekin izatea ere garrantzitsua eta gozagarria da.

3. Ez dakit posible den.



♦ Karmele Jaio

Edertasun inperfektua

Edertasunaren historia ("Historia de la belleza", Lumen) izenburua duen liburua idatzi du Umberto Eco eta bertan historian zehar gizakiak edertasunera hurbiltzeko egindako ahaleginak azaltzen ditu. Garai bakoitzean aldatuz joan da edertasunaren kontzeptua eraikuntza, pintura; musika, moda edo literaturaren arloetan, baina beti sentitu du gizakiak edertasuna bilatu eta artearen bidez azaltzeko beharra.

Edertasunaren bila ibiltze hau ez da, hala ere, begi onez ikusia izan garai eta testuinguru guztietan. Errealitatearen gordintasunetik ihes egiteko jarrera koldarra dela uste izan da askotan. Gizartean dauden gatazka, arazo eta egoera latzen aurrean begiak itxi eta gezurrezko mundu bat eraikitze jarrera dela salatu izan dute zenbaitzuk eta bada gaur egun horrela pentsatzen duenik ere. Edertasun kontzeptuaren erabilera oker baten ondorioz sortutako ideia dela uste dut. Edertasunaren kontzeptua politaren sinonimoak diren hitzetara murriztu delako: ederra izateko izan behar duelako polita, ederra izateko izan behar duelako ona, perfektua, itxura onekoa, usain onekoa... Baina edertasuna zentzu zabalago batean ulertu daiteke: edertasuna izan daiteke gordina, inperfektua, okerra. Izan daiteke iluna, usain txarrekoa, baita likatsua ere. Eta izan daiteke konprometitua eta, ondorioz, mundu zital hau ulertu eta hobeto ezagutzeko tresna.

Edertasuna era askotakoa izan daiteke, beltza edo zuria, alaia edo tristea, urrezkoa edo kartoizkoa, baina, hori bai, beti da labainkorra eta beti pasatzen da doministiku baten abiaduraz.

COCIDITO MADRILEÑO ANTZEZLANA GLU-GLUREN ESKUTIK



Madrilgo lapikokoa umorez hartuta

edurne begiristain
arg.: edorta sanz

COCIDITO MADRILEÑO ANTZEZLANA IZEN BEREKO LIBURUAN ETA JAVIER VIZCAINOK 'MAS QUE PALABRAS' IRRATSAIOAN GIDATZEN DUEN ATALEAN OINARRITUTA DAGO. ANTZERKI LANAK AZUL-COLORAO ANTZOKIAN ZUZEN- ZUZENEAN EGITEN DEN IRRATSAIOA DU ABIAPUNTU, IRRATI KO COCIDITO-AN ENTZUNDAKO BITXIKERIEK BIDERATUTA.

ELOI BEATO GASTEIZTARRAK ZUZENDU DU ANTZEZLANA, BERAK ETA GALDER PEREZ EK EGOKITUTA. RAMON CASTRO, GORKA AGINAGALDE, GURUTZE BEITIA, GALDER PEREZ ETA JOSEAN DE MIGUEL AKTOREEK JOKATUKO DITUZTE IRRATI ESATARIEN ROLAK. HILAREN 10EAN ESTREINATUKO DUTE LANA TOLOSAN. GASTEIZEN EKAINAREN 24 ETA 25EAN IKUSI AHAL IZANGO DITUGU.

Euskarak, homosexualitateak, ikastolek, elizak, euskal kirolak eta euskal pilotariak zeresan ugari emango diete Madrileko sasikazetariei. 70 pertsonaia pasatuko dira gaur egungo komedia bizi eta barregarri honetako eszenatokitik. Egun komunikabide batzuek Euskadi, Euskal Herria, Vascongadas edota EAERI buruz ematen duten ikuspegia islatu nahi dute Glu-Glukoek, betiere umore ukitua ahortzi gabe.

ELOI BEATO ALONSO, zuzendaria

"Hasieran pentsatu nuen ezinezkoa zela lan hau antzerkira eramatea"

- NOLATAN SORTU DA COCIDITO MADRILEÑO IRRATSAIOA ANTZERKIRA ERAMATEKO IDEIA?

Idea Glu-Glu ekoiztetxearena izan da. Irratsaioaren (ez liburuaren) eskubideak eskatu zituzten antzerkira moldatzeko. Glu-Glukoak nirekin harremanetan jarri ziren gidoiaren moldaketa egin nezan Galder Perezekin batera, eta lanaren zuzendaritza eramateko. Udan ekin genion lanari, eta entseguak irailean hasi genituen.

- LANA ZUZUNTZEA PROPOSATU ZIZUTENEAN, ZER IRUDITU ZITZAIZUN? NOLA JASO ZENUEN?

Lehen mementoan pentsatu nuena izan zen ezinezkoa zela lana antzerkira eramatea. Saioa ezagutzen nuen, baita liburua ere, baina ezinezkoa iruditzen zitzaidan antzerkira eramatea; merkatuan egin zitezkeen gauzen artean antzerkira eramatea zailena zelakoan nengoan. Baina, ideia gustuko nuen, izugarri gainera... Hartara, Galderrekin batera lanean hasi nintzen; erabaki genuen Codicito-ko ahots korteak hartzea eta pertsonaia anonimoen ahotan jartzea. Pertsonaia horiek ohikoak diren egoeretan agertuko dira, esaldi horiek esanez, elkarriketak sortuz, Cocidito-ren esaldi literalekin eszena errealak sortuz. Formula hori aurkitu genuenean, majikoa den formula hori, argia ikusten hasi ginen, eta ideia horren gainean lan

egiten hasi. Ostean, gidoia egin genuen: eszena desberdinak dira, asko eta asko esaldi literalak dira, eta beste asko esaldi horien antzezpena.

- ZEIN DA ANTZELAN HONEKIN LORTU NAHI DUZUEN HELBURUA?

Funtsean, barrea eragitea. Muntaia komedia moduan egin dago, eta barregurea sortu nahi dugu. Nire ustetan tertulia horiei aurre egiteko modu bakarra umorearekin da. Ez bagenu umorez hartuko, guztiok ultzerarekin bukatuko genuke... (barre egiten du). Azken batean hitz ergelen aurrean entzungor egitea hoberena da, serio hartuko bagenu, bide okerretik joango ginatkeelako.

- TAULA GAINERA ERAMAN BEHAR ZENITUZTEN AHOTS-KORTEAK AUKERATZEA LAN ZAILA IZAN AL ZEN?

Bai. Radio Euskadi-k gordeta dituen 3000 korteekin lan egiten aritu ginen. Egia esan, oso zaila izan zen guk korterik basatienak aukeratu nahi genituelako, baina horrenbeste zeuden, baten bat aukeratzea zail samarra egin zitzaigula. Gaika hautatu genituen: ikastolak, euskaltegiak, euskal politikariak, eliza, euskal kirola...

- ZEOZER KANPOAN UTZI BEHAR IZAN DUZUE PUBLIKOARENTZAT GOGORREGIA ZELAKOAN?

Bai, batzuk ez ditugu sartu, gogorregiak

zirelako eta uste genuelako jendeari barregurerik ere ez ziola eragingo. Guk geuk ateak itxi egin dizkiegu zenbait gauzari, desatseginak zirelako eta ikuskizunarentzat kaltegarriak izan zitezkeelako. Izan ere, gure helburua da publikoa antzezlanaz gozatzea eta barre batzuk botatzea.

- ANTZEZLANA EUSKAL HERRIAN BAINO EZ DUZUE TAULARATUKO MEMENTOZ. ZURE USTETAN ESPAINIAKO PUBLIKOARENTZAT EGINDAKO LANA DA? HAIK ULERTUKO AL LUKETE UMORE HORI?

Euskal Herritik kanpo antzeztuko bagenu, ziur naiz Espainiako publikoak ez lukeela behar bezala ulertuko, lana interpretatzeko behar beste datu ez dituelako, berez jasotzen duen informazio



gehiena tertuliano horiek eskainitakoa delako; beraz, haientzat ez litzateke ulergarria izango obra hau, ez luke arrakastarik ezta zentzu handirik izango beraientzat. Madrilen, ordea, euskaldun asko dagoenez, egin zitekeen, ulertzeko datu nahikoak dituztelako.

- DENA DELA, EUSKAL HERRIKO

PUBLIKOA ERE NAHIKO ITXIA IZAN OHI DA ZENBAIT GAI JORRATZEKO ORDUAN. HAINBAT GAIREKIN EZIN DELA FRIBOLIZATU USTE BAITU ASKOK ETA ASKOK. EUSKALDUNOK GEURE BURUAZ BARRE EGITEKO GAI AL GARELA USTE DUZU?

Euskal gizartean mina eta sufrimendua alde guztietan dago. Politikaz umorea egitea zaila izan ohi da, sentikortasun handia dagoelako.

Baina nik uste dut euskal gizarteak oro har umore gehiago behar duela, ziur nagoelako euskaldunok umorea dugula. Euskal publikoak barre egitea gustuko du eta barre egiten du... Agian behar gehiago dugulako izango da. Baina argi dago herri alaia garela eta barre egitea gustuko dugula. Horregatik guk komedia kutsua eman diogu lanari, guztiok barre egin dezagun.

- HILAREN 10EAN ESTREINATUKO DUZUE COCIDITO MADRILEÑO TOLOSAN. HORTIK AURRERA AGENDA BETE-BETEIA IZANGO DUZUE. NOLA DOAZ ENTSEGUAK? GUSTURA ZABILTZATE?

Ni izugarri pozik nago. Zuzendari eta aktore moduan egin ditudan ikuskizunen artean estreinaldira hoberen prestatuta eramango dudana dela uste dut. Asko ari gara entseatzen, Bilboko La Acheria izeneko lokal on batean, aktoreak oso gustura dabilta... Oso pozik gaude guztiok.

GORKA AGINAGALDE, aktorea

"Kanpoan ez bezala, hemengo publikoak ulertuko du lan hau"

Antzerki munduan eskarmentu handikoa da Gorka Aginagalde aktore gasteiztarra. 1994an Sobradun antzerki taldea sortu zuen Iñaki Rodaballo, zendutako Jon Gabella eta Eloi Beato aktoreekin batera. Besteak beste, 30 millones de gilipollas eta Herminio Bolaextra lan arrakastatsuak antzeztu ditu. Zinemari ere ibili da.

- ZER DA ZURETZAT COCIDITO MADRILEÑO ANTZEZLANA? NOLA DEFINITUKO ZENUKE?

Berezia da, apurtzailea, kritikoa. Komedia bat da. Eta alderik onena da ez direla barre egiteko gauzak, baina guk barregurea eragiten dugula. Halako gauzak entzuten direnean hobe barre egitea... eta lortuko dugula uste dut.

- ZEIN IZAN DA LANAREN ALDERIK ZAILENA?

Tertulianoen esaldiak naturaltasunez esatea eta horretarako ohitura hartzea. Bada obraren zati bat esandakoa eszenaratzen duguna: esaterako, Arzalluzi buruz diogu txoratuta dagoela, eta hori antzeztu egiten dugu, esaldi literalak esanez. Orora 70 pertsonaia taularatzen ditugu, eta atzeko lana izugarria da, aldaketa asko egin behar dira, dena presaka...

- ETA ALDERIK DIBERTIGARRIENA?

Bada... dibertigarria dela! Esaldiak entzun eta barre egiten duzulako!

- ZEIN USTE DUZU IZANGO DELA HEMENGO PUBLIKOAREN ERANTZUNA?

Ona izatea espero dut. Hemengo jendeak ongi pasako du, ulertuko du. Lana oso lokalista da, kanpoan zaila da ulertzeko, baina hemen ez, hemen ulertu eta gozatu dute.



JOSEAN DE MIGUEL, aktorea

"Geure buruaz barre egitea beharrezkoa da"

Eloi Beatorekin batera Ñake antzerki taldean dabil Josean de Miguel aktore gasteiztarra. Cocidito Madrileño ko aktoreetako bat ere bada.

- NOLA DEFINITUKO ZENUKE COCIDITO MADRILEÑO?

Irratsaioa ezagutzen duenak, badaki zein den filosofia. Madrilgo tertulianoek euskaldunok ikusteko duten modua islatzen dugu. Irratiko saioarekin dagoen alde nagusia da haiek gutaz esaten dutena eszenaratu egiten dugula.

- ZEIN IZAN DA ANTZEZLANAREN ALDERIK ZAILENA ZURETZAT?

Testuari dagokionez, errealitatean esaten dena bromatan hartzea da gauzarik zailena. Gainera, sintaktikoki zein gaizki hitz egiten duten ohartzen zara. Batzuetan, apaingarri askorekin, baina beste batzuetan hiztegiari

ostiko galantak ematen dizkiote. Beraz, hori guztia buruz ikastea ez da samurra. Bestalde, lana berez oso dinamikoa da, bai kanpora zein barrura begira, 70 pertsonaia dira, eszena asko, motzak gehienak...

- ETA ALDERIK DIBERTIGARRIENA?

Ez dago eszena zehatz bat. Aipatzekotan, euskarari ematen dioten tratamendua oso dibertigarria dela uste dut. Azken batean, geure buruaz barre egitean dago gakoa, behar dugu eta!

- PUBLIKOAK ONGI PASAKO DUELA USTE DUZU?

Bai, zalantza barik. Gai bakoitzarekin bi gauza desberdin egiten ditugu: esaldi literalak esaten ditugunean kutsu kritikoa dauka eta ez dugu zuzenean barrea bilatzen. Bestetik, eszenaratzea parodiagarriagoa da, umore handiagoa dauka eta publikoak ongi pasako duela uste dut.



GAU BAKAR BAT IKUSKIZUNA



IDOIA ZABALETA, dantzari eta koreografoa



**"Gorputza
komunikazio-tresna
artistiko eta
politiko gisa
interesatzen zait"**



"GAUR BAKAR BAT" DANTZA GARAIDEA ETA ESPERIMENTALA BATZEN DITUEN EMANALDIA DA. IXIAR ROZASEK IDATZITAKO ETA IDOIA ZABALETA DANTZARI GASTEIZTARRAK ZUZENDURIKO IKUSKIZUN BERRIA DA. SAIOA IBAÑEZ, GABRIEL OCINA, MIREN GAZTAÑAGA ETA AMAIA PASCUAL DIRA DANTZARIAK ETA MUSIKA KEPA ELGOIBARREK IDATZITAKOA DA. "OSO POZIK ARITU NAIZ EGITASMO HONETAN, BESTEAK BESTE, PROZESU OSOA EUSKARAZ IZAN DELAKO ETA NORMALEAN GAZTELANIAZ EGIN OHI DUDALAKO", DIO DANTZARIAK.

idoia zabaleta



Emanaldia gauaren berehalako etorreraz mintzatzen da. Taldearen esanetan, "Argia, iluntasuna, itzalak eta harresiak, kanpokoak eta barrukoak, azaleratzen dira; eta batez ere, heriotzaren aurretik eta ondoren sentitzen den hutsa". Ordena eta kaosaren arteko tirabiraz mintzatzen den ikuskizunak 50 minutuko iraupena du eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak ditu.

-ORAINGOAN AMARAUNA ETA MOARÉ TALDEEK IXIAR ROZASEN "GAU BAKAR BAT" ANTZEZLANA ESTREINATU DUZUE. ZU IZAN ZARA IKUSKIZUNAREN ZUZENDARIA, NOLA HELDU ZEN PROPOSAMEN HAU ZURE ESKUETARA?

Duela bi urte abian jarritako istorio bat da hau. Ixiarrek testua idatzita zeukan eta antzerki talde baten bila zebilen bere testua gauzatu ahal izateko. Niri eskatu zidan dantzariaren papera egitea, eta denborak aurrera egin ahala esan zidan ea zergatik ez nuen nik neuk zuzentzen antzezlan. Nik Gabriel Ocinari (Amarauna taldekoa) laguntza eskatu nion, alabaina gero antzerki-lana izanik handi geratzen zitzaidala pentsatu eta ezezkoa eman nion Ixiarri. Azkenik, buelta asko eman ondoren beste aukera bat aurkeztu nion Ixiarri. Hau da, antzezlanean jorratzen zen gai bera mantentzea baina tratamendua nolabait moldatzea.

-HORTAZ, HASIERAKO PROPOSAMENETIK EGITASMOA GAUZATU ARTE EGOKITZAPENA EGON DA.

Nik ez nuke egokitapenez hitz egingo. Izan ere, liburua oinarria izanik ez dut bertako protagonistekin lan egin, baizik eta ideiarekin soilik. Ondorioz, Ixiarrek emanaldian off-ean entzuten den olerki bat idatzi zuen eta horren gainean lanean aritu gara. Orain hiru "Gau bakar bat" ezberdin daudela esan daiteke, liburua, dantza-lana eta olerkia, alegia.

-ZEIN DA IKUSKIZUNAREN GAI NAGUSIA?

Mundua bukatzera dihoa eta izenburuak dioen bezala azken gaua da. Hilabetez egon ginen uda partean emanaldiaren prestaketan.

-BATETIK DANTZARIEZ ETA BESTETIK ANTZEZLARIEZ HITZ EGIN DAITEKE?

Batzuk dantzariak dira eta beste batzuk,

garelako bildu ginen. Nik Gabriel Ocina proposatu nuen proiekturako eta aldi berean norberak beste izen batzuk aipatu zituen. Hilabete izan genuen lan egiteko, eta nahiz eta denbora gehiegi izan ez, guztiz kontzentratuta ibili ginen lanean ekaina aldean Sevillan. Jakin badakigu prozesu baterako denbora gutxi dela,

hitz egiten ari den ahots hau ez da gurea euri asko egin du geroztik esnatzen ari dira zuhaitzen itzalak egunsentiarekin bat egiteko beso erreetako aurora malkoetan desegiten da beti egongo da espazio bat kanpoko espazioaren ondoren
ixiar rozas



aldiz, antzerkitik datoz, baina ezin da muga zehatz batez hitz egin. Testua off-ean dago eta mementoren batean batzuek abestu egiten duten arren, dantzaren harian gauzatu da ikuskizuna eta oro har mugimenduaz ari gara, beraz, ezin bereiztu.

-NOLA SORTZEN DA IKUSKIZUN HONETARAKO LAN TALDEA? NOLAKOA IZAN DA SORMEN PROZESUA?

Beti bezala elkarren artean ezagunak

nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza urria dela eta, gehiagorako denborarik ez zegoen. Sormen prozesuak oro har ez dira errazak, dena den, hau erosoia izan zen eta elkarrekin lanean oso gustura ibili ginen, nahiz eta estreinua ez zen espero bezala ateratzen. Santiago de Compostelan izan zen uztaillean eta kalean aurkeztu izanak baldintzatu gintuen, izan ere, ez da kaleko ikuskizun bat. Bajori mementoa izan zen, baina



ondoren lanean jarraitu genuen lana gehiago borobildu arte. Ondoren Irunen eta Bilbon egon gara. Gasteizen hasieran egin bagenuen ere, berriro egitea espero dugu.

-HERIOTZA ETA BIZITAREN ARTEKO DANTZALDIAZ MINTZATEN DEN LANA IZANIK ZEIN DA PUBLIKOAREN ERREAKZIOA?



Oraindik lana mugitu beharra dago erantzuna jakin ahal izateko. Halarik ere, egia da ez dela lan erraza ulertzeko. Nire lan guztiak bezala, badago beti zeini gustatu eta zeini ez.

-SORPRESARIK TOPA DEZAKE IKUSLEAK?

Ez, egia esateko dantza garaikide normalaren ildotik abiatzen den ikuskizuna da. Tira, dantza garakideko emanaldi bat sekulan ikusi ez badute akaso, dena dela hori jende motaren arabera da;

bestela alde horretatik nahiko normala da dantzalan hau.

-DIRU-ITURRIAK ETA LAGUNTZAK AIPATU DITUZU LEHEN. EZ DA GAUZA BERRIA DANTZA GARAİKIDEAK GERO ETA ZALE GEHIAGO ETA PRODUKZIO UGARI IZATEA ETA ALDI BEREAN, DIRUZ APENAS LAGUNDUTA EGOTEA. KONTRAESANAK KONTRA-ESAN, EGOERA EZ OMEN DA OSO SAMURRA IZAN BEHAR BERTATIK BIZI ZARETENENTZAT?

Bai horrela da, baina nekatuta nago esateaz dirulaguntza gutxi daudela eta abar, horrela izango baita secula seculorum. Nekagarria da horretan sartzea behin eta berriro. Ni dantza garaikideaz bizi naiz klaseei esker; produkzioa egitea, aldiz, zaila da, dirulaguntzak tartean direla, lan txikiak egiteko besterik ez baita heltzen, ez baitu ematen argia, eszenatokia eta abar ordaintzeko. Orduan beti gabilta underground mailan..., izan ere, ezin gauza handiegirik egin; aitzitik, alde horri begiratuta ere, ni pertsonalki nire bizitzako memento honetan amateur modura bizi naiz (amateur profesionala nahi baduzu); halere, pozik nabil eta era berean, ez naiz presionatuta sentitzen gauza bat edo beste egiteko. Mugimenduan ikertzen jarraitzeko aske sentitzen naiz. Alde alternatiboa ere eskaintzen dit nolabait egituretan eta abar. Gauzak asmatu behar dira, ez gara euren zain egongo. Zertan jarraituko dudan ez dakit, halarik ere argi dago gorputza komunikazio-tresna artistiko eta politiko gisa interesatzen zaidala, eta horretan jarraituko dut.

-PROIEKTU BERRIEZ HITZ EGIN DEZAKEZU ORAIN?

Bai, bai... ideiak eta proiektuak beti ditut, proiektu guztiak ikasteko erabiltzen dituzu eta. Aurten hau baino lan txikiago bat egiteko asmoa daukagu, Moaré-ko Sara Paniagua eta Leticia Moralesekin. Lanaren izenburua, oraingoz, "Gata

sombra" da. Izena eta emanaldiaren nondik norakoak alda daitezke, baina ideia hor dago.

Ikuskizunaren protagonistak

idoia zabaleta eta moaré: Mariaje Ariznabarreta, Leticia Morales eta Idoia Zabaletaren esku sortu zen 1992 urtean gorputzaren eta dantzaren hizkuntzak aztertuko zituen Moaré Dantza elkarte gasteiztarra. Ordutik urte hauetan guztietan Dantza Berria eta Contact Inprobisazioaren etengabeko ikerketa egin dute. "Conversaciones" (1991), "Runas" (1992), "Surco" (1996), "Motz" (2000), "La puta inocencia" (2001), "El rato de José" (2002), "Zeru Urdina" (2003) eta oraingoz "Gau bakar bat" (2004) dira taldeak bere ibilbidean gauzatu dituen lanak.

amarauna taldea: Duela hiru urte sortu zen Bilboko Amarauna Dantza taldea. Amaia Pascualek, Gabriel Ocínak eta Rosana de la Fuente Muelle 3 Estudioan (Bilbon) aurkeztutako mugimenduen inguruko lanen ondorioa da Amarauna egitasmoa. "Manía" izan zen taldearen lehendabiziko koreografia (2002) eta ondoren "Hueco" egin zuten (2003).

ixiar rozas elizalde: Lasarte-Orian jaio zen 1972 urtean. Kazetaritzan lizentziatua da eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gidoiaritza Masterrak ditu. Eleberria, ipuina, poesia eta antzerkia landu ditu. "Edo zu eta ni", "Sartu, korrantea dabil", "Luego les separa la noche" eta "Gau bakar bat" lanak argitaratu ditu. "Periferiak" ekimenaren sortzailekidea da.

saioa fdz de arangiz

arg: edorta sanz

"Gure bi pasioak, eskalatzea eta bidaiatzea, batera lantzea izugarria da"



- ZUEN AZKENENGO BIDAIA AEBTARA IZAN DA. ZER EGIN ZENUTEN BERTAN?

Iker- AEBtako Yosemiteira joan ginen, "Al Filo de lo Imposible" telebista saioko programa bat grabatzera, hain zuzen. Guztira, 40 egun egon ginen Utah, Nevada, Arizona eta Kaliforniako estatuetan. Helburu nagusia Kapitaineko Nose bidearen igoera askea grabatzea zen. Honek 1.100 metro eta 34 luze ditu eta hauetatik 32 luze egitea lortu genuen. Oso pozik gaude, beraz.

Eneko- Ondoren bidaiaren bigarren zatia ekin genion eta batez erè, bertako parke naturalak grabatu genituen. Honela, Utahko estatura joan ginen, Moab herrira eta Indian Creek-era, hau guztia indiar navajoen lurraldea izaki. Hemendik, Canyonland eta Arches parke naturalak bisitatu genituen eta ondoren, Koloradoko Gran Cañonetik eta Monument Valleytik pasa ginen, azkenik Las Vegasera heldu arte.

- HORREZ GAIN, "7 PARETA 7 KONTINENTE" PROIEKTUA MARTXAN JARRI ZENUTEN IAZ. ZERTAN DATZA?

Iker- Asmoa kontinente bakoitzean eskalada askean bide zail bat igotzea da, gure irizpideen arabera, interesgarria eta zaila den bidea eskalatzea, hain zuzen. Proiektua igaro den urteko maiatzean jarri genuen abian eta Ipar Amerikako Yosemite parkeko El Niño bidea aukeratu genuen. Ondoren, iraila eta urrian Europaren txanda izan zen eta El Naranjo de Bulnes igo genuen.

Aurten, berriz, Madagaskarrera bidaiatu genuen uztailan, proiektuaren hirugarren pareta eginez, hain zuzen. Hurrengo datorren otsailean izango da, Ozeanian.

- ZEIN IZANGO DA GAUZATUKO DUZUEN HURRENGO PROIEKTUA EDO BIDAIA?

Eneko- Oraintxe bertan gure nahia da batez ere "7 pareta 7 kontinente" egitasmoarekin

buru-belarri sartzea. Hala ere, posible izango litzateke datorren urtean "Al filo de lo imposible" programarekin bestelako saioen bat egitea, baina egia esan, komeni zaigu aipatutako proiektuan kontzentratzea.


- AZKEN BOLADAN, MENDIA ETA ESKALADA GERO ETA GEHIAGO PRAKTIKATZEN ETA ENTZUTEN DIREN KIROL BILAKATU DIRA. ZUEN USTEZ, ZEIN DA GASTEIZKO EGUNGO EGOERA?

Iker- Nik uste dut Gasteiz eskalatzaile harrobi handia dela. Egun eskalada-murruak daude Hegoalde eta Ariznabarrako gizarte etxeetan eta azken finean, horrek eragiten du jendearengan. Nire aburuz, kriston zaletasuna dago eta jende asko eta ona ateratzen ari da memento honetan.

Eneko- Bai, hala da. Komunikabideek egin ditugun azken igoeren berri eman dutenez, jendea zaletasuna hartuz joan da eta nire ustez, hori asko nabaritu da Gasteizen azken urteotan. Baina ez bakarrik gure partetik, baita beste eskalatzaile

gailurrean

ASKI EZAGUNAK DIRA POU ANAIEN EKINTZA GOGOANGARRIAK. ESKALATZAILE TREBATUAK, AMAIERARIK GABEKO PARETA ZAIENAK MENDERATU DITUZTE MUNDUAN BARRENA. EGUN, AEBTATIK HELDU BERRI DIRA, "AL FILO DE LO IMPOSIBLE" TELEBISTA SAIO BAT GRABATU OSTEAN. HORREZ GAIN, EUREN "7 PARETA 7 KONTINENTE" PROIEKTUA ESKU ARTEAN DUTE, BEGIAK OZEANIARA BIDERATUTA DITUZTELARIK. HONETAZ GUZTIAZ, ETA BAITA EUREN ZALETASUNAZ ETA ETORKIZUNAZ ERE, MINTZATU ZAIZKIGU IKER ETA ENEKO ANAIA GASTEIZTARRAK.



batzuei esker ere, Juanito Oiarzabal kasu Betidanik hemen mendizale asko egon da.

- BIDAIAK AMAITZEAN ETXERA, GASTEIZA, ITZULTZEN ZARETE. ZER EGITEN DUZUE HEMEN? NOLAKO IZATEN DA ZUEN OHIKO EGUN BAT?

Iker- Denetarik egiten dugu. Hementxe gaudenean, proiektzioekin hasten gara eta ia egunero baten bat egiten dugu nonbaiten. Bestalde, entrenatzen dugu. Normalean egunean bitan, goizez eta arratsalde. Beste batzuetan, berriz, hiritik kanpo joaten gara arroka baten bat igotzera.

- MENDIAZ GAIN, BESTELAKO ZALETASUNAK ERE IZANGO DITUZUE, EZTA?

Eneko- Bai, gastronomia asko gustatzen zaigu!!... Egia da, bidaietatik bueltatzen garenenean hemengo janaria jatea gustatzen zaigu! Adibidez, AEBtan nahiko gaizki jan genuen!

Horrez gain, zinema ere gustuko dugu, baita lagunekin ateratzea ere! Itsasoa,

esaterako, maite dugu eta ahal dugun guztietan surf egitera joaten gara. Egia esan, kirola asko gustatzen zaigu, batez ere, mendiarekin harremana duen oro, eskiatzea bezala. Dena dela, oso denbora gutxi izaten dugu libre, alabaina, ahal dugunean bestelako gauzak egitea gogoko dugu.

- HAINBESTE HERRIALDE EZAGUTU OSTEAN, ZEIN DA GEHIEN GUSTATU ZAIZUENA EDO ZUENGAN ERAGIN HANDIENA IZAN DUENA?

Eneko- ...zaila da esatea!! Denek daukate zerbait berezia. Izan ere, Madagaskarretik oso inpresio ona ateratu dugu. Jendea oso erakargarria da, oso jatorra eta irekia eta herrialdea izugarri polita. Orokorrean herrialde pobre bat izan arren, jendea oso bizia da. Benetan hunkituak itzuli ginen bertatik!

Iker- Kanada ere herrialde izugarria da, baliteke ikusi dugun politenetarikoa! Oso basatia eta polita.

- BIDAIAZTEN DUZUENEAN, DENBORA LIBRE ASKO IZATEN DUZUE. ZER DA MOTXILAN EZINBESTEZ ERAMANTEN DUZUEN OBJEKTUA?

Iker- Beti liburuak eramaten ditugu, hegazkinean zein base-guneetan denbora

libre asko izaten baitugu.

Eneko- Horrez gain, nik hemengo musika eramaten dut beti, Benito Lertxundi, adibidez. Ohitura bat da. Psikologikoki ahul nagoenean entzuten dut. Bestetik, arnesean ere labana eramaten dugu, gauzak gaizki jartzen baldin badira erabiltzeko! Jajaja...

- NOLA IKUSTEN DUZUE ETORKIZUNA? ZER EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUEKE?

Iker- Nagoen moduan jarraitzea! Horrela oso ondo bizi naiz eta! Dena den, niri suhiltzailea izatea gustatuko litzaidake.

Eneko- Printzipioz, nik uste dut mendiaren abantaila epe luzerako dela da. Gorputzak irauten duen bitartean, ez dago arazorik! Izan ere, bizitza osoan mendiarekiko harreman honekin jarraituko dugula uste dut. Ziurrenik, urte askorekin ezin izango dugu goi-mailako ekintzarik egin baina ikusiko dugu. Ikerrek esan bezala, gauden moduan egotea gustatuko litzaiguke, batez ere, gure bi pasioak batera lantzen ditugulako, bidaia eta eskalada, alegia. Herrialde ezberdinetatik bidaiatzea, bertan eskalatzea eta bertako jendea eta kultura ezagutzea maite dugu, hori oso polita baita.

ALVARO GONZALEZ

"Naturaren erritmoak behar"

josune velez de mendizabal

arg: edorta sanz



URRIAREN 18AN JAKINARAZI ZUEN ALVARO GLZ DE GALDEANOK TXIRRINDULARITZA UTZIKO ZUELA. HALERE, URTARRILERA ARTE EZ DA BUKATZEN LIBERTY SEGUROS TALDEAREKIN DAUKAN KONTRATUA ETA ORDU ARTE LASTERKETARIK EGINGO EZ DUEN ARREN ENTRENATZEN DABIL EGUN ERE. "TOURRA PASA ETA GERO DENBORALDI LASAIA DAUKAGU ORO HAR TXIRRINDULARIOK".

"12 urte eman ditut txirrindulari profesional bezala, eta jende gaztea eta berria zure leku bila datorrenean gogoratzen duzu hau ez dela bizitza osorako -dio Glz de Galdeano anaia nagusiak-. Zaila izaten da erabakitzea noiz utziko duzun baina, oster, agurra arduratzen zaituen zerbait da beti. Agurraren itzalpean bizi zara beti eta orain heldu da. Gainera, aurten erradioa apurtu eta ez da oso urte ona izan niretzat.

-GAZTE-JENDEA SARTZEA BELDURREZ IKUSI AL DUZU?

Ez, ez, normala da. Ni ere gaztea izan naiz txirrindularitzan eta beste asko joan ziren, Txozas, Mujika...

-ONDORIOZ, BISTA ATZERA BOTA ETA AZKENENGO URTE HAUETAZ ZEIN DA EGITEN DUZUN BALORAZIOA?

Niretzat txirrindularitzan aritu izana onena izan da eta berriro jaioko banintz txirrindularia izango nintzateke. Azken finean nire bizitza izan da, pertsona zein kirolari bezala.

-ZERBAIT KENDU AL DIZU?

Lagunekin egoteko denbora akaso. Jaiak ere ezin izan ditut bizi nire lagunak bizi izan dituzten bezala. Horretaz konturazen naiz leku batean geratu eta Gasteizko tabernak ezagutzen ez ditudala dakidanean. Bestetik, ikasketak ere UBIn utzi nituen, ez nuen bukatu, nahiz eta ez zen txirrindularitzaren erruz izan, baizik eta nik hartutako erabakiaren ondorioz.

-ETA HEMENDIK AUERRERA ZER EGITEKO ASMOA DAUKAZU?

Txirrindularitzari lotuta dagoen zerbaitetan jarraitzeko asmoa daukat, ez eliteko kirolari gisa baina bai lanean, hori baita gehien ezagutzen dudan mundua.

- "HARTUTAKO ERABAKIAN EZIN ATZERA EGIN" AIPATU ZENUEN, BIZITZAREN ZEIN BESTE EGOERAREN AUERRA EZ ZENUKE IRITZIZ ALDATUKO?

Maitasunean adibidez. Nire emaztearekin egotea ez nuke aldatuko sekula. Beste arloei dagokienez, berriz,

DE GALDEANO:

uta utzi dut txirrindularitza"

ikasketetan daukat nik arantza hori. Kontrakoa ikusi dut, esaterako, nire anaiarengan, zeinak ikasketetan jarraitu duen, IVEF ikasten alegia. Ni 18 urtetik 22 urtera arte Madrilén egon nintzen eta Olinpiadetan parte hartzeko aukera izan nuen eta berriro ere erabaki bat hartzeko goieran izan nintzen.

-“NATURAREN ERRITMOAK BEHARTUTA UTZI DUT TXIRRINDULARITZA”, BIZITZAK BESTE EZER EGITERA BEHARTU AL ZAITU INOIZ?

Ez, bakarrik egoera honetan sentitu naiz horrela. Oso lan polita izan da, gustuko izan dudana eta hori izan da nire zortea.

-“KIROL HONETAN JARRAITZEKO 35 URTE DEBEKATURIKO ADINA DA”, ZER GEHIAGO EZ DU BAIMENTZEN ZURE USTETAN ADIN TARTE HORREK?

Egia esateko 42 urterekin beren ibilbide profesionala bukatu duten txirrindulariak ere badira, dena dela normalean 35 urteak izaten dira egokienak agur esateko. Beste gauza askori ekiteko, oster, orain daukat aukera. Agian parranda izatea zailagoa izaten da orain, alabaina ez da hori nire asmoa. Nire bizitza aldatuko dela badakit, halere oraindik daukat bizitza erdia gauzak egiteko.

-TXIRRINDULARITZAN SARTU IZAN EZ BAZINA ZER-NOLAKO BIDEA JARRAITUKO ZUKEEN ZURE BIZITZAK?

Hori da askotan nire buruari egin diodan galdera. Unibertsitatea bukatu eta gero lanean noski; 10 urte eramango nituzke enpresaren batean lanean.

-BESTE KIROL BATEAN IKUSIKO ZENUKE ZURE BURUA?

Ez dakit, zestapunta gustatzen zait. Beste kirol batzuk ere praktikatu ditut, zestapunta, yudo eta igeriketa, halere goi-mailako kirolari bezala ez dut nire burua txirrindularitza ez den beste batean ikusten.

-ZEIN DA ZURE IBILBIDE PROFESIONALEAN ETA BIZITZAN GOGORATZEN DUZUN TARTERIK GOZOENA?

2000 urtea, orduan lortu baintuen Espainiako Itzulian, Italiako Giroan eta Estatu espainoleko Txapelketan garaipenak. Bizitzan, berriz, oraindik heltzear dagoela uste dut.

-ETA GAZIENA?


Egia esateko urte asko izan dira tristeak, horietako bat nire osaba hil zenean izan zen; guretzat txirrindularitzan gure aita izan baitzen, berarekin hasi nintzen eta berarekin agurtzea ere nahiko nukeen. Une latzak ere badira urtero joaten diren pertsona maitatuak galtzea.

-NEGAR EGIN ZENUEN AZKENENGO ALDIA?

Bereziki gogoratzen dut Jokin Ormaetxearen hileta. Beste modu batean, aldiz, filmak ikusten ditudanean ere negar egiten dut, oso sentibera naiz eta.

-ETA BARRE?

Palan ibili ginen herenegun anaia eta biok eta barre ugari egin genuen hain txarrak garelako jabetzean.



ibilbide profesionala

-13 urterekin hasi Aguraingo Txirrindularitza Eskolan

-Gazte-mailan eta Amateur: Peña Ciclista Dulantz

-Profesionala: Artiach, Fundación Eroski, Seguros Vitalicio, Once, Liberty Seguros

-1990, 1991, 1992: Estatu espainoleko txapelduna amateur mailan

-Barcelona-92 Olinpiadetan diploma lortu zuen

-2000 urtean Italiako Giroan, Espainiako Itzulian eta Estatu espainoleko Txapelketan garaipenak

gera zibila

KOLDO AZKUE- Araba Oi Araba! liburuen egilea

Arabarren borroka Euskal Herriaren alde



GERRA ZIBILEKO ARABA BATAILOIAREN INGURUKO LIBURUA ARGITARATU BERRI DU KOLDO AZKUE IKERTZAILE ETA IDAZLEAK. ARABA OI ARABA! IZENBURUEAN, ARABARREK GUDAN IZAN ZUTEN EGITEKOA AZTERTU DU AZKUEK, GARAI HARTAN BORROKATU ZIREN 11 GUDARIREN LEKUKOTZAK JASOZ. GURE MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO EZINBESTEKO ARGITALPENEA.

Araba Oi Araba! Gorka Knörren abesti ezagunaren izen berbera erabili du Koldo Azkue idazleak bere azken libururako. Abesti horretan Arabari ematen zaion tratamendua "samurra eta maitagarria" iruditu zitzaion jarri zion izenburua, baina izenorde bat ere jarri zion, "La lucha en Araba por la libertad de Euskal Herria" (Arabako borroka Euskal Herriaren askatasunaren alde), gaia nondik nora doan argi gera zedin.

Arabarren gerra zibilean izan zuten jarrera eta zeregina landu du Azkuek liburu horretan. Bere aita Irrintzi batailoiko komandantea izateak berebiziko eragina izan zuen ikerketa liburua idazten hasteko. Unitate horren kapitain baten pista jarraituz

(Blas Kintana) Orduñaraino joan zen, eta han Blas Kintana Araba batailoaren kapitaina ere izan zela jakin zuen. Laster agertu ziren Kune Egiluzen seme-alabak. Kune, Araba batailoiko kapitain laguntzailea izandakoa hilik zegoela esan zioten, baina Amurion batailo horren gudari ohi bat bizi zela jakinarazi zioten, alegia, Ezequiel Gauna... Artziniegan beste bat zegoela, Laudion bi, Lezaman agian beste bat... Horiek horrela, esku artean zuen ikerketa albo batera utzi eta Araba batailoarenean buru-belarri sartu zen.

Informazio mota asko bildu du Azkuek Araba Oi Araba! liburuan: Arabako lurraldetasuna, aztarna historikoak, bereizgarri soziologiko eta politikoak, Sabino Aranaren

abertzaletasunaren zabalkuntza, errepublika garaiko Arabako iparraldeko hirien egoera, gerra sortu zeneko faxisten errepresioa, Araba batailoaren sorrera... San Pedro eta Txibiarteko fronteak, Sollube, Mungia, Unbe, Areeta, Portugalete, Arraiz Mendia... langileen batailoak, espeteak eta bestelakoak. Arabarren gerra garaian izan zuten jarrera ulertzeko aurretik egitura sozialak eta berezitasun kulturalak aztertu behar direla iritzia dio Azkuek, eta horregatik gerra aurreko zenbait datu erabiltzea derrigorrezkoa zela pentsatu zuen liburua egiteko. Era berean, lekukotzak jasotzea ezinbestekoa izan zen Azkuerentzat. "Artxiboetako datuak eta beste ikerlarien erreferentziak garrantzitsuak izanik ere,

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER

AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

oso hotzak dira historia baterako. Pertsonaiek gertaerak nola bizi eta sentitu dituzten erakustea, beti izan da niretzat helburua", diosku. Horregatik, lekukoen kontakizunak liburuaren ardatza direla esan daiteke.

Orora Arabako 11 gudari elkarrizketatu ditu Azkuek, 84 eta 94 urte bitartekoak, beste askorik ez baita geratzen. Arabako frontearen egon ziren beste batailoietakoa batzuekin ere mintzatu da: ANV, Leandro Carro, CNT, Arana Goiri, Padurakoak... Horrek esan nahi du haien arteko gazteenak 16-17 urterekin gerrara joan zirela, eta zaharrenak 26 urterekin. "Gure azkeneko gerratearen belaunaldia amaitzen ari zaigu eta gure memoria historikoa oraindik lau paperetan ziriborraturik...", dio penaturik.

Arabaren zeregina gudan

Liburuaren egileak azaldu digunez, Arabak zeregin handia izan zuen gerra zibilean, onerako eta txarrerako. "Faxisten altxamenduak Gasteizen eta hegoaldean laguntza ederra izan zuen, Gasteizko aireportutik hegazkin frankista asko atera ziren, karlistek eta falangistek arabarren odol asko isuri zuten...", dio. Baina, beste alde batetik, Arabako iparraldeko lurak eta gizonak, Aramaioetik Artziniegara, Bizkaiaren defentsa izugarria izan zirela azpimarratzen du.

Halaber, errepresioa, Nafarroan bezala, Arabako berezitasun bat izan zela dio.

Eta jazarpen hori pairatu zuten batzuen izenak gogora ekartzen ditu: Sevillano Etxeberri, Isaac Puente, Gonzalo Betolaza, Teodoro Gonzalez de Zarate... Errepresioaren

ARABA, OI ARABA!

LA LUCHA EN ARABA POR LA LIBERTAD DE EUSKAL HERRIA



Koldo Azkue

kokalekuak ere ezin ahaztu: Azazeta, Aiurdin, Zuia, Azkarate, Langraiz... "Hainbat tontor eta lurralde gorritz margotu ziren!", azaldu digu.

Araba batailoiaren sorreraz ere mintzatu zaigu Azkue. Esan digunez, batailoiaren lehenengo boluntario izan zirenak, Ramon Azkue eta Jose Duo, Arrankudiagako lursail batean prestatu zituzten. Geroko

lehenengo konpainia, Estabillo, Okondoko Sagarrarte lursailean egituratu zen... Oro har esan daiteke, Araba batailoiaren betebeharrak nagusia Orduña aldean zegoen San Pedro de Berazako posizioei eustea izan zela, fronteko muturra han baitzegoen. Bere bizitza Euskal Herriaren alde arriskuan jarri edo galdu zuen edozein gudari arabar aipagarria dela uste du Azkuek. Horregatik, Araba batailoiaren lehenengo hildakoak aipatzen ditu, bereziki.

Liburua prestatzea ez da lan samurra izan Azkuerentzat. Bi urte eman ditu harat-honat, informazioa biltzen: Audio, Amurrio, Orduña, Aiara, Artziniega, Okondo, Lezama... eta beste hainbat herri bisitatu ditu. Mendi tontorretara ere igo behar izan da: San Pedro, Txibiarte, Altube, Albertia... Argazkiak atera, elkarrizketak grabatu... Lan asko, bai, baina emaitza ikusita, merezi izan duela esan beharra dago.

Gainera, Azkuek idazten jarraitzeko gogotsu jarraitzen du, eta duela bi urte Araba batailoiaren gaineko liburua egiteko alde batera laga zuen liburua berriro martxan jarriko du. Euskal Herriko historian zehar erresistentzia, protesta eta erreboltaren oihuak, irrintziak, matxinada sozialak, borroka armatuak, eta nola ez, lehengo mendean euskaldunek jaurti zuten irrintzirik handiena (1936-37ko gerrakoa) jasoko ditu bertan.

edurne begiristain

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

XABIER ETXANIZEkin solasean

saioa fdz. de arangiz
arg.: edorta sanz

Haur eta gazte literatura,

XABIER ETXANIZ MAGISTERITZA ESKOLAKO ZUZENDARIAK 1990EKO HAMARKADAN HAUR ETA GAZTE LITERATURAK IZAN ZUEN GARAPENA AZTERTZEN DU MANU LOPEZ GASENIREKIN BATERA IDATZI DUEN LIBURUAN. BERE ESANETAN, "LITERATURAREN KONTZEPTUA DEFINITZEA OSO ZAILA DA, ORAIN ARTE LITERATURA BAKARRIK LIBURUEKIN ERLAZIONATU IZAN DELAKO. BAINA MUSIKAK, ZINEMAK, MARRAZKIEK, ETAB. LITERATURAREKIN HARREMAN ZUZENA DUTE ETA HORTAZ, KONTZEPTUA ASKOZ ZABALAGOA DA EGUN".

Honi guztiari haur eta gazteen kontzeptua gaineratzen badiogu, terminoa korapilatzen dela aitortzen du Xabierrek. Hala eta guztiz ere, haur eta gazte literatura haurrek eta gazteek irakur eta uler ditzaketen testu literarioak direla dio; "berdin da beraientzat apropos idatzita izatea ala bereganatu izatea. Esaterako, Julio Vernerren nobelak edo ipuin tradizionalak helduentzako liburuak ziren hasiera batean, hala ere, egun gazteek ere irakurtzen dituzte. Kontzeptuak aldatu dira, beraz".

80. hamarkadaren garrantzia

Haurrentzako euskarazko lehenengo liburuak 1803. urtean ikusi zuen argia. Geroztik bi mende igaro diren arren, urte horretatik 1960. urtera arte argitaratu ziren liburuen kopuru berdina publikatu ziren bakarrik iaz, hots, urtebetean soilik 200 urtetan argitaratu ziren beste liburu merkaturatu ziren.

Hasiera batean haurrentzako liburuak, erlijiosoak, ikasteko liburuak eta antzerki lanak izaten ziren. Izan ere, 1960. hamarkadara arte ez zen benetako kezka literarioa eratu. Honela, helburutzat irakurtzeko polita zen literatura ekoiztea zuen mugimendua eratu zen, batez ere Iparraldean. Hala eta guztiz ere, Xabier Etxanizek 80. hamarkada bereizten du bereziki, garai hartan gauza garrantzitsu bi hasi zirelako; "batetik, literatur modernoaren hastapena izan zen eta kanpoan arrakastatsuak suertatu ziren liburu berriak eta berriztatzaileak egiten hasi ziren. Bestetik, hamarkada honen hasieran haur eta gazte literaturaren benetako produkzioa ugaritu zen, besteak beste, garai hartan Elkar eta Arin argitaletxeak eratu zirelako", azaldu digu.

Haur eta gazte literatura, egun

Gaur egun, hasiera bateko gabezia asetu da eta Xabierren hitzetan, "memento honetan merkatuak ezin du ekoizpen gehiago onartu". Urtero haurrentzako 300 eta 350 liburu inguru argitaratzen dira eta euskaldunon kopurua kontuan hartuz, kopurua nahiko ona dela onartzen du Xabierrek.

Argitalpen berri hauen artean, 60-70 liburu inguru sorkuntzako liburu berriak izan ohi dira, beste hainbeste berrargitalpenak eta erdia baino gehiago itzulpen berriak. Egoera hau normala dela dio elkarrizketatuak; "logikoa da, dauzkagun idazleak lar ez direlako eta merkatua beti gauza berrien bila dabilrelako". Alabaina, egia ere bada gehien saltzen diren liburuak eta gehiagotan berrargitaltzen direnak sorkuntzako argitalpenak izaten direla.

Bestetik, Euskal Herrian helduentzat idazten duten idazle gehienek haurrentzat ere idazten dute, hortaz, ez da bereizketarik egiten. Honela, Bernardo Atxaga, Felipe Juaristi, Andu Lertxundi, Arantza Urretabizkaia, Patxi Zubizarreta edo Aitor Arana dira txikientzako liburuen sortzaile. Bertan jorratzen diren gaiak, bestalde, anitzak dira, ez dagoelako arrakasta nabarmena daukan korrante literarioik. "Orain dela urte batzuk errealismo kritikoa zen nagusi. Hau da, gaurko gizartean dauden benetako arazoak haurrei azaltzeko korrontea; pobrezia edo bakardadea, besteak beste", dio Xabierrek. Halarik ere, istorio tradizionalak eta abenturazko edo polizi liburuak asko irakurtzen dira. Denetarik dago.

Ekoizpenaren kalitateari dagokionez, urtero publikatzen diren 350 liburu hoiaren artean %4 gutxi gorabehera oso ona dela azaldu digu Xabierrek, kanpoko



sasoi onean!

DURANGOKO AZOKAK HURRENGO ABENDUAREN 4AN ZABALDUKO DITU ATEAK BERRIZ ERE. AZOKAREN LEHENENGO JARDUNALDIA HAUR ETA GAZTEI ZUZENDUTAKO EGUNA IZAN OHI DA, AURTEN IZAN EZIK (SEI EGUNEKO AZOKA EZ IZATEARRREN). HALERE BERTAN,

URTERO LEGEZ, IRAKURLE MULTZO HONI BIDERATUTAKO LITERATURA OPARO ETA BERRIA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DUGU. EUSKARAZKO LITERATURA MOTA HONEK ORAIN DELA BI MENDE JAIO BAZEN ERE AZKEN URTEOTAN BIZI IZAN DU BERE BENETAKO GOIENENKO ALDIA.



xabier etxaniz

JAIO: Oñatin, 1961ean

IKASKETAK: Euskal Filologia, doktoretza Gasteizen ikasi zuen. 20 urte daramatza Arabako Magisteritza Eskolan irakasle eta egun bertako zuzendaria da.

LANAK: Haur eta gazte literaturaren inguruko makina bat artikulu eta liburu idatzi ditu, baita ipuinak ere. Azkenekoa, Manu Lopez Gasenirekin idatzi du, "90eko Haur eta Gazte literatura". Durangoko Azokan aurkeztuko da.

liburuekin lehia egiteko modukoak direla aitortuz.

Egiazki, haur eta gazte literaturan topatzen dugun arazo nagusia kanpoko merkatuetarako urratsa ematea izango

litzateke, euskarazko produkzioa kanpoan ezagutarazteko biderik ez dagoelako. Hau da, merkatuak nahiko itxiak dira eta zaila suertatzen da euskarazko produktuak kanpoko argitaletxeetan saltzea.

"Orokorrean esanda, idazle bakoitzak bere liburua bestelako hizkuntzetara itzultzeko berebiziko ahaleginak egin behar ditu", diosku Xabierrek.

Dena dela, baikorra ikusten du Xabierrek haur eta gazte literaturaren etorkizuna: "haurrek eta gazteek benetako interesa adierazten dute irakurketan eta helduek baino gehiago irakurtzen dutela esango nuke. Orokorrean esanda, gazteenei zuzendutako euskarazko literaturaren egoera oso ona da, batez ere, gaztelaniarekin alderatuta, umeek euskarazko antzerki, film edo jolastoki gutxiago dauzkatelako eskura. Ondorioz, euskarazko irakurketa nagusitzen da". Gauzak horrela, ez da zaila esatea haur eta gazte literatura sasoi onean dagoela.

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

GASTEIZKO BATZOKIAK



**EAJ
PNV**

ABENDAÑO

Enrique Eguren, 5-7
Tfnoa. 945242852
945220715 (jantokia)

ERDIALDEA

Santa Barbara pza. z/g
Tfnoa. 945203312
945280997 (jantokia)

LAKUA

Biltzar Nagusien k, 54
Tfnoa. 945175651
945176406 (jantokia)

ZARAMAGA

Gasteiz kalea, 18
Tfnoa. 945288068

Taldeentzako bazkariak eta afariak prestatzen dira, aurretik erreserba eginez

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ


Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiatua.

Horixe duzu gure konpromisoa.



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

NEREA IDIGORAS



Ekologista eta alaia

ALAIA DA OSO. ALAIA ETA BAIKORRA. HALAXE DA NEREA IDIGORAS 26 URTEKO NESKA GASTEIZTAR EUSKALDUNA. INGURUMENAREKIN KEZKATUTA DAGOEN GAZTEA IZAKI, NEKAZARITZA INGENIARITZA IKASKETAK HASI ZITUEN DUELA URTE BATZUK, ETA OSTEAN, INGURUMENAREKIN ZERIKUSIA DUEN MODULUA IKASI ZUEN. EGUN NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN MUNDUAN DABIL LANEAN. INGALATERRAN URTE ETA ERDI BIZI IZAN ZENEAN ERE, ALOR HORRETAN JARDUN ZUEN. MENDIA, LAGUNEKIN PARRANDA EGITEA ETA BIDAIATZEA DIRA NEREAREN ZALETASUN PREZIATUENAK, NAHIZ ETA ASKOTAN EZIN DUEN NAHI ADINA ATERA, ASTEBURUETAN TABERNA BATEAN LAN EGITEN BAITU.

- **DUZUN BIZIORIK HANDIENA?** Jatea, lo egitea eta parranda egitea.
- **FOBIARIK?** Gaixotasunei. Maite dudan norbaiti zeozer txarra gertatzeari.
- **BERTUTE BAT?** Gauzak alde onetik ikusten ditudala.
- **JAKIRIK GUSTUKOENA?** Nire amamaren babarrun zuriak. Izugarriak dira! Eta aitarenak ere ederrak dira!
- **ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?** Naturaren kontra egiten diren sarraskeriek.
- **ZER BEHAR DUZU ONGI PASATZEKO?** Lagunez inguratuta egotea.
- **GAUA ALA EGUNA?** Biek dute alde ona.
- **GEU ALDIZKARIAREN ETA ELKARTEAREN BERRIRIK?** Bai, hasieratik. Neba aldizkariko harpideduna da.
- **EGUNKARI BAT?** Berria.
- **IRAKURRI DUZUN AZKEN LIBURUA?** Los ojos del tuareg.
- **TELEBISTA SAIO BAT?** Telebista ez dut oso gustuko, baina aukeratzekotan Vaya semanita.
- **PERTSONAIA BAT?** Aitona.
- **OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?** Munduko edozein tokitan. Bizitzeko ikuspegi desberdinak ezagutzeko.
- **GASTEIZEK DUEN ONENA?** Bost minututan mendian zaudela.
- **ETA TXARRENA?** Alkatea eta etxebizitzaren prezioa.
- **EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?** Mugitzen zaren tokiaren arabera, bai.
- **ZER ESKATZEN DU HERRIAK?** Zoriontasuna.
- **ETA ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?** Zoriontsu izatea.

AZAROA. AGENDA

EUSKARAREN EGUNA

abenduak 3
LITERATUR IKUSKIZUNA
(diputazioaren eskariz prestatua)



1. Hiru hitz gezurraren inguruan
Partehartzaileak: Castillo Suarez, Pedro Ugarte eta Iban Zaldia (Karlos Gimenez pianoan)
2. Zazpi asmakizun eta bat gehiago



~Baina nik poza kantatutzen det~
Parte hartzaileak: Olatz Zugasti (harpa), Karlos Gimenez (pianoa) eta Pello Ramirez (txeloia eta akordeoia); esatariak: Mari Karmen Odriozola, Garazi Hach Embarek eta

Patxi Zubizarreta (gidoia); Gema Arrugaeta (argazkiak)
Aurkezlea: Miel Anjel Elustondo
Noiz: Abenduaren 3an, iluntzeko 19:00etan
Non: Dendaraba merkataritza gunean, Vital Kutxa Fundazioaren aretoan
*Sarrera doan. Lehen ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta bigarrena, atsedeen txiki baten ostean, 20:00etan
*Saioaren aurretik -beharbada egunean zehar ere bai- Lazarragaren eskuizkribua ikusgai egongo da

DURANGOKO AZOKA

abenduaren 4tik 8ra

"LITERATURATEN ITZALAK"
EMANALDIA

abenduak 2
Iban Zalduaren "Itzalak" azken liburuaren aurkezpena: berak egindako irakurraldia, pianoaz lagundurik (pianojoea: Koruko Heras)
Luis Aranburu musika-eskolan, 19:30ean

AMODIOZKO GUTUNEN XIII.
BERRIGARA LEHIAKETA

urtarrilak 7

Lanak (orijinala eta hiru kopia) eta egilearen datuak dituen kartazala, handiagoa izango den beste batera sartuta, honako helbide honetara bidali beharko dira:

Amodiozko Gutunen XIII. Berrigara Lehiaketa
Jardun Elkartea, Errotalde jauregia z/g 20570 Bergara
kulturajardun@topagunea.com
Antolatzailea: Jardun Elkartea
Informazio gehiago: www.jardun.net
Epea: 2005-1-7

SMS BIDEZKO III. MAITASUN MEZUEN
LEHIAKETA

urtarrilak 1-15

Antolatzailea: Jardun Elkartea
Pertsona bakoitzak ezingo du mezu bat baino gehiago bidali
Mezuaren ostean telefono mugikorraren zenbakia eta adina jarri beharko da
Mezuak jasotzeko epea mugatua izango da; urtariletik 1etik 15era
Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz izan beharko dute
Mezuak 605712469 telefonora edo kulturajardun@topagunea.com posta elektronikora bidali beharko dira
Irakurle Gazteek emango duten saria izango da: 90 euro

PARRAL TABERNAREN 9. URTEURRENA

Ikus. kontrazala.

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN
AGENDA

Ikus. 34. orr.

GAUEKOAK

abenduak 17 eta 18

GAUEKO GAZTE GASTEIZ MUSIC; bertako taldeen IV erakustaldia.
Azkena Aretoan. 20:00etan. Sarrera: 2 euro
www.gauekoak.com

IX. CORTADA JAIALDIA:

abenduak 13-16

Proiektzioak Guridi Zinemetan izango dira (sarrera: 2 euro)
Informazio gehiago: www.cortadafestival.com

ELEKTRO DARK KONTZERTUA

abenduak 11

Kromlech-ek aurkezten du:
HOCICO (Mexiko) + dioxide (Madril)

Kontzertuaren ondoren:

Djak: electro, industrial, ebm, gothic, medieval...
Stand-a eta bideo-emanaldiak ere izango dira
HELLDORADO aretoan (Urtiasolo industrialdea), 22:00etan

www.helldorado.net

Informazioa + sarrerak eskatzea (4 gehienez): kromlech@terra.es



DETRITUS ANTZERKI TALDEAREN ETENALDIA

"Detritus Corazón", "Gü-Gü txupete" eta "Las punkies también lloran" dira Gasteizko Detritus Teatrus antzerki taldeak bost urteko ibilbidean egin dituzten salaketa eta umorezko emanaldi entzunak. Hurrengo ikuskizunaz gozatzeko, aldiz, urtebeteko denbora itxaron beharko dugu, gutxienez. Javi Huete eta Belen Nevado eszenatokietatik desagertuko baitira denbora batez. Arrazoi bakarra ez dago eta bikotearen esanetan "egunerokotasunetik ateratzeko nahita egin dugun zerbait dela esan dezakegu", aitortzen dute. Espero duten umeak ere zerkusua duelakoan... Zorionak bikote!

Bizitza osoa eszenatokian eman eta gero zaila egiten da Huete eta Nevado denbora batez antzerkiaren mundutik urrun irudikatzea. "Beno, datozen hilabeteetan Detritus bezala arituko ez garen arren, bestelako proiektuak ere baditugu egiteko..., ahal den heinean, noski", dio Belenek bere sabelari begira. Mementoz, eta goizegi ematen badu ere bere hurrengo ikuskizunaren izenburua buruan bueltaka dabilkio bikoteari, "Mama punk" alegia. "Buelatuko gara eta antzerki-lan berriarekin izango da", zin dagite. Kide berria behintzat izango du ordurako Detritus Teatrus-ek. Laster arte, beraz!





IRIASOLA

GLUPS!

BA ERREGEEK
"PLANA" EKARRIKO
DUTE...

BORBOIEK?!



Sartu

Zure arropa eta oinetakoa

www.sartudenda.com

Kubxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRAL
TABERNA

Errezeak, astaldunak, ostaldunak

JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOA KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aitzogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoia
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

>GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

PUBLIZITATEA

945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN
GORRI

Sexua euskaraz
bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

MIKO

Izozkiak

bar • restaurante •
A
albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

IRVSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

EA
eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org

GA
gazte
abertzaleak
www.gazteabertzaleak.com

>GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

HARPIDETZA

945 22 21 53

Argazki - Estudioa

Erramun

Hercilio Fourrier, 23
Tfnoa: 945 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 945 19 91
01004

Dalvez
argitarazleak

Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa: 652 77 65 09
dalvez@dalvezdiseinu.euskalnet.net

BAR
KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Gasteizko setioa

Araba Iruñeko erreinuaren parte zen hamargarren mendean, Antso II Garzes Abarka erregea zela.

Araba, eta Nafarroako erreinu osoa, baziren aspalditik Gaztelako erregea zen Alfonso VI.aren helburu. Lehengo saialdia 1076 urtean izan zen, baina nafarrek Ebroren beste aldera bidali zituzten gaztelarrak.

Geroztik ere Nafarroa eta Gaztelaren arteko liskarrak izan ziren, batez ere 1134. urtetik aurrera. Guztien atzetik Nafarroako erreinua bereganatzeko gaztelauen asmoak zeuden.

Haien aukera 1200 urtean gertatu zen.

Garai hartan Nafarroako errege Antso VII. Marruekoson zebilen Ymulei Abdalai, Tremeceneko erregeari laguntzen Tunezeko erregearen kontra.

Tremecenekoak eta Nafarrak garaile suertatu ziren borrokan, baina Antso VII. larriki gaixotu zen. Gaztelako Alfonso VIII.ak, nafarraren lehengusuak, gaixotasunaren berri izan zuenean bere unea heldua zela pentsatu zuen eta Nafarroako inbasioari ekin zion Nafarroako gudarostearen zati handi bat Afrikan zegoela aprobetxatuz.

Gauzak horrela, gaztelarren armadak Arabako mugak gurutzatu zituen eta Gasteiz setiatu zuen 1200 urtean.

Gasteizko gobernadorea Martin Txipia zen. Eskarmentu handiko militarra eta erregearen konfidantzako gizona.



Martin Ttipiaren omenezko oroigarria

Gaztelako armadak setioa hasi zuen eta horretarako bateriak, katapultak eta oinezko soldadu asko erabili zuen, baina gasteiztarrek ez zuten etsi eta saialdi guztiek kale egin zuten.

Zazpi hilabete iraun zuen setioak eta nahiz eta jatekorik izan ez eta gosea pasa, nafar arabarrek ez zuten amorerik eman.

Bitartean, Iruñeko gotzaina saiatu zen setioarekin bukatu eta bakea lortzen. Horretarako Nafarroako erregearekin hitz egin zuen eta honek, kontrerasoa antolatzeak aukerarik ez zuenez ikusten, etsi egin zuen eta Gasteiz Gaztelako erregearen esku uztea agindu zuen.

Hala eta guztiz ere, gasteiztarrek beste hilabete inguru

jasan zuten setioa.

Horrela eta Gasteiz galdu eta gero, ia Araba osoa gelditu zen Gaztelaren eskuetan, Guardia, Bernedo eta Labraza izan ezik.

Dena den, Arabako handiki seinalatu batzuek Nafarroari fideltasuna gorde zioten, tartean Gebara eta Mendoza familiako batzuek.

Urte horretan Nafarroako erreinuak bere zati garrantzitsu bat galdu zuen, Gipuzkoa eta Bizkaia ere galdu baitzituen, eta horrekin batera Kantauri itsasorako irteera.

© Txema Flores, "Araba Gerran 1936" liburuaren egilea

EL
BAR
Kutxi

eguneko menua

DIBUtec
Paper Beretziak
Arte Ederetarako Materialak
Zirkulu original eta birzikletuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Komiseten Estampaketak

dazkarprint
Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimaketa
nota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 • GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 ifnoa. 945 25 02 39


GARI, garai berri bati helduz


**DISKO BERRIA KALERATU BERRI DU
IÑAKI GARITAONAIN DIA GARIK "0-TIK"
IZENBURUAREKIN, BAKARKA LANDU
DUEN HIRUGARREN LANA, HAIN ZUZEN.
HAMAIA KORTE ETA BEDERATZI KANTA,
EUSKARAZ NAHIZ GAZTELERAZ, BILTZEN
DUEN DISKOAK MUSIKARIAREN GARAI
BERRI BATI HELTZEN DIO ETA ELKAR
DISKOETXEAREN ZIGILUPEAN
ARGITARATU DA.**

Inoiz baino baikorrago azaldu da Gari bere azken lan honetan. Bizitzak bere aurpegi politena erakusten dion seinale. Animoso eta zoriontsu azaldu da bere lanaz mintzatzeko orduan. Atzera begiratu gabe, aurrera egin du musikariak azken urteetan eta bere garai txarrenak ahaztu nahian garai berri bat bizitzen ari deneko isla jasota geratu da CD honetan. Berak aitortuta aita izateak ere eragin handia izan du bere ibilbide profesionala nahiz pertsonalean.

Garik ahotsa eta gitarra jarri ditu eta berarekin batera Hasier Oleaga baterian, losu Izagirre baxuan, kontrabaxuan eta koruetan, Juanma Gereñu gitarra eta koruetan, Jean Marie Ecay gitarran, Koldo Uriarte koru eta pianoan eta Kepa Mtz de Albeniz akordeoian, teklatueta eta koruetan ibili dira. "Oso sintonia onean aritu gara taldekideok", azaltzen du abeslariak.

Aurretiaz, Perutik bueltan etortzean, alegia, gaztelaniaz abesten entzun genuen. Oraingoan ere gaztelaniaz konposaturiko kantak entzungai dira, euskarazkoekin batera, CD honetan. Gariren letraz gain Jon Benitok, Kepa Muruak, Jon Maiak eta Bernardo Atxagak idatzitakoak ere musikatu dira. Bere esanetan, "zuzenean defendatuko" duten lana biran hasi da dagoneko. Irribarre zabalez abiatu da oraingoan Gari zerotik aurrera, zoriontasunaren bidaian.





di-da

-Disko bat:

erosi dudan azkena, Jimmy Column.

-Liburu bat:

erosi dudan azkena, Atxagarena (Soinujolearen semea).

-Film bat:

Erosi dudan azkena aipatuko dut ere bai, "Lost in traslation".

-Janari bat:

edozein, dena gustatzen baitzait.

-Amets bat:

zoriontsu izatea.

-Egun zoragarri bat:

gaur adibidez... erromantiko jarri gero zurekin hitz egitea (barreak, ugari, eta kazetaria pozarren ozta, noski).

-Zenbaki bat:

Parrish Sim piloto britaniar batek kaskoan zeramana, 7 zenbakia.



-AURKEZTU BERRI DUZUN LANAREN IZENBURUAK HUTSETIK HASTEN ZAREN SENTSazioa IRADOKITZEN DU, HORRELA AL DA?

Niri ere horrela iruditzen zait. Hutsetik hastea ez da erraza, ezinezkoa da baina adibideak ematen jartzen bagara ingelesa ikasten jartzen banaiz eta soilik lau hitz baldin badakizkit, orduan hutsetik hasten zara. Nire kasuan gauza bera gertatzen da, beste era batean bizitzen ikasten ari naiz, nolabait nire bizitza normalizatzen, beno nolabait ez, erabat! Eta horrexegatik jarri diot izen hori diskoari; gainera pozik sentitzen naiz eta mementoa zen horrelako garai bati ekiteko.

- GARAI BERRI HONETAN HORTAZ, POSITIBOAGO ARITZEN ZARA. BA AL DAUKA HONEK ERAGINA ZURE LAN BERRIAREN HITZETAN ETA ESTILOAN?

Nik baietz uste dut, askatasun askorekin lortu dugun emaitza baita disko hau. Alde horretatik ez diogu konplexu gehiegiri eutsi ez neuk ezta taldekoek ere. Talde

lana izan da eta sintonia oso-oso ona egon da bertan. Bestetik, prozesu orokorrean aita izatea oso baldintza inportantea izan da garai berri honetan.

-MUSIKARI GAZTEKIN NAHIZ BETERANOAGOAK DIRENEKIN ARITU ZARA, ZER GEHITU DIO BAKOITZAK EGITASMO HONI?

Lan hau feeling delakoan oinarritu da. Aurretik ez naiz pausoak markatzen joan, normalean horrela egin izan dut-eta; hots, dena bere kasa ibil dadila utzi dut. Zentzu honetan oso positiboa izan da.

-ZEROTIK ABIATU ZARELA-ETA, NOLA JARRAITZEN DU ZENBAKI PROGRESIOAK?, ZEIN DA HELMUGA?

Hori jakitea gustatuko litzaidake niri... Hori orain aurreratzea ezinezkoa da niretzat (barreak). Mementoan oso ondo sentitzen naiz eta taldekoak ere bai. Hortaz, asmoa dugu diskoa zuzenean defendatzea eta horretan geratzen gara.



Afganistango emakumeek euren errealitatea ezagutarazteko Euskal herrira egindako bidaia

"GOLHA" izeneko kanpainak Afganistango emakumeen elkarteek egiten duten lana zabaltzen laguntzea du helburu, eta Euskal Herriko emakume taldeekiko elkarlana bultzatu nahi du. Zehatzago esanda, sare honen zabalkundea eta laguntza bultzatu nahi du: Afghan Women's Network (AWN) - Afganistango Emakumeen Sarea.

AWN sarea 1995ean sortu zen, Pekingo Goi-bileraren ostean, eta berrogeiren bat elkarte osatzen dute. Sareak Afganistango emakumeen elkarteak koordinatzea du helburu, elkarte horiek gizartean aritu daitezen gaitzea, eta errebindikazio eta salaketa ekitaldiak antolatzea. Era berean, familia barruko indarkeriaren kontra egiten du lan, gizartea gai horretaz sentsibilizatzeko; bestalde, generoari buruzko

lantegiak ere antolatzen ditu, Afganistango gobernuko zenbait ministeriotarako. AWN sarearen barruan RAWA bezalako elkarte enblematikoak daude (Afganistango Emakumeen Elkarte Iraultzailea), eta talibanen garaian, era klandestinoan, sortutako beste zenbait, irakaskuntza eta prestakuntza arlokoak, zein osasun, justizia eta kazetaritza arlokoak, besteak beste. AWN sarearen gaur egungo egoitzak Kabul-en (Afganistan) eta Peshawar-en (Pakistan) daude (www.afghan-womensnetwork.org).

Kanpaina honen barruan, Afganistango AWN sareko bi emakumek Euskal Herria bisitatu zuten, azaroaren bukaeran, beren lanaren berri emateko. Batetik, Golha (loreak) dokumentalaren aurkezpena hiru hiri-buruetan egin zuten; Afganistanen egindako film honek



hango emakumeen gaur egungo egoera islatzen du, bai eta sarean dauden zenbait elkartetako emakumeen lana ere. Horrez gain, bilerak eta hitzaldiak eskaini zituzten, emakume-taldeekin eta beste era bateko elkarteekin, hango eta hemengo emakume-taldeen arteko harremanak bultzatzeko eta esperientziak trukatzeko, eta etorkizunean, agian, elkarlana bideratzeko.


Afganistango emakumeen errealitatea zuzenean ezagutzeko bidaia, finean.



Golha (loreak) dokumentalak Afganistango zenbait emakume-elkarte egiten ari diren lana du oinarri, baina oso ondo islatzen ditu hango emakumeen egoera, oraindik pairatzen dituzten eskubideen urraketak, eta batez ere emakumeen interesen alde egiteko duten erantzun eta antolatze gaitasuna.

Araba bixotzian

Jon Zubiaur



Bertakoari so!



ERLANTZ URTASUNen
txokoa

Olentzaro

Zortzigarren hilabeteko jai gau argi batean, Legutioko barraren aitzinean Enbata Dama nagusi zelarik, Eguzki-Eki amandrea mutiko batez erditu zen. Alta, Ilargia izebaren sehaskatik hankak atera bezain laster mutikoak inguruan zebilen Biasteriko amosaltzaile bati zahatxo lapurtu zion. Hau da, zalantzarik gabe, mutiko horri leporaturiko lehen bihurrikeria, erran nahi baita agiri zaharretan jaso diren aipamenen artean sinesgaritasun handiena eskaintzen duena, alegia. Une hartan jaio zen, antza, "Olentzero" goitizena, berari dagokion gure erreferentzia garbi bakarra, zeren eta benetako izen abizenak Gaztelako soldaduek erre baitzituzten, Gasteizko artxibategian kiskali zirelarik.

Goitzenaren erranahia dela eta, bertzalde, hainbatetan "persona onen maila gorena" edota "gauza onen garaia" adierazpenei lotu zaizkio (ikus "Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa" kasu). Araza bere osotasunean ulertu ahal izateko, halere, bere ogibidea zein den kontuan hartu behar dugu. Izan ere, eta denboralditxoetan ikazkinarena bete duen arren, bazter guzietan eskale gisa bizi ei da. Hau dela medio, euskalki gehienetan ezaguna dela idatzi da, hala nola "Olentzaro", "Onentzaro", "Orentzaro" "Onontzaro" eta bertze. Kataluniako iparralde menditsuan, halaber, "Anitx Onkitziro" modukoa ere jaso da XVII. mendeko inquisizioaren akta batean.

"Dagoenean bonbon" planta eginez, eskalea tripandi ikaragarria omen da, Añanako barazki zein bildotsak tarte direnean, batik bat. Ildo beretik, Zalduondo, Korres, Artziniega, Armentia eta Argantzunen emazte bana duela leporatu diote, baita, frogarik gabe bada ere, Euskal Herriko hiriburua den Iruñean bi direla kaltetuak, hain zuzen ere Harriatorantz auzoko Orkatx eta Nafarriritik at dagoen Indatxikia karrikako Gerrieder.

Oihana biziki maite duela erran da, baita umeak ere. Horregatik, beharbada, egun laburreko negu bete-betea baserrietako ekoizpenak jaitzi egiten dizkie herrietako umei: gaztain erreak, arrautzak, oilaskoak,.... Dena den, bidean produktu horien erdiaren bikoitza jaten duela oroitarazi beharra dago. Zurez eginiko jostailuak, hori bai, hamaikagarren zakutotik ez ditu askatzen, igorle txantxazale bihotz onetik hartzaileen begi gazte distiratsuei helduz.

Urteoro abenduko hogeita lauaren azken orduetan hil ohi da, berarengan zintzoki sinesten duten euskal umeek opariak izkutatzun dituzten kaxetako paper koloredunak, kris kras, irekitzerakoan. Hauek dira, Pako Aristi adituaren ustez, orain arte eskaini duen "Euskaldunon Aberria" izeneko elkarrizketaren hondar gogoeta: "Gaur egun inork ez du gaztelurik egiten hondarretan. Haurrei ez diegu amets egiten erakutsi. Dena erosi, dena ahora eman, bertzeak baino gutiago ez izatearen konplexu tontoak bultzata. Dena diruaz lor daitekeela erakutsi diegu, eta ez imajinarioaren bidez ilusioa lortzen, zorion garbiago bat berreskuratzen".

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

Idi isats krepineta

Prestakuntza

⇒ Isatsa ondo garbitu (gantz behar bezala kenduz), eta zatitu ondoren, gatz eta piperrautsaz gozatu, irinetan igaro, eta oliba oliotan gorritu bi aldeetatik.

⇒ Puska handietan zatitutako barazkiak gehitu, gatz pixka bat ere, eta tapaz estalita utzi dena erregosten, barazkia gorritzen hasten den arte.

⇒ Brandyaz flanbeatu, ondoren ardo beltza gehitu, eta gainetik salda pixka bat, dena ongi estali arte.

⇒ Utzi dena egosten 2-3 orduz, isats zatiak bigunak gelditzen diren arte.

⇒ Puregailuaz birrindu saltsa, eta ondoren galbahetik pasatu, berriro sutan jarri eta gatzez probatu.

⇒ Isatsa hoztu ondoren, hezurrak kendu, eta zati txikitari desegin.

⇒ Saltsa apur bat gehitu, eta berriro epeldu poliki-poliki erre gabe.

⇒ Ur irakinetan galdarraztutako zerba-hostoetan bildu eta zirkulu forma eman; ondoren urdaiazpiko-xerretan bildu.

OSAGAIK:

- Idi isatsa
- Irina
- Kipula
- Baratzuria
- Azenarioa
- Porrua
- Gatza eta piperbeltz txuria
- Brandy
- Ardo beltza
- Txahal salda iluna
- Zerba hostoak
- Urdaiazpiko xerra finak

HORNIGAIK

- Pasta freskoa espinaka zaporeduna
- Esnegaina
- Piperbeltz txuria

⇒ Pasta ur-gazi irakinetan egosi 5 bat minutuz, xukatu, zartagin bero batean eta olio apur baten laguntzaz salteatu, piperbeltz txuri apur bat gehitu, eta esnegain baso erdi batekin egosi.

Plateraren antolaketa:

⇒ Krepineta labea berotu ondoren, plateran jarri, bota saltsa apur bat gainetik, eta pastarekin hornitu platera.





GEU ALDIZKARIAK 555 KANPAINA ABIAN JARRI DU

Azken orduko arrazoiengatik (ikusi azalpena beherago) Araba osoko euskara hutsezko hilabetekari bakarra den GEU ALDIZKARIAK ezinbestez 555 harpidedun berri behar ditu proiektuari zulorik sortu gabe eusteko. Soberan dakizuen legez, garai zailak dira euskara eta euskal kulturarentzat gure herrialdean eta gure hirian, eta halako egitasmoek derrigorrez hiritarren konpromisoa behar dute.

Hau dela eta, besteak beste, gure egungo harpidedunengana ere jotzen dugu (euskaltegi eta irakaskuntzan ere kapaina abian da jada), hots zuengana jotzen dugu, GEUrekin bat egin dezazuen eta lagun diezaguzuen harpidedun berriak lortzen. ZUETAKO BAKOITZAK HARPIDEDUN BERRI BAKAR BAT EGITEAREKIN NAHIKOA LITZATEKE 10.000 EUROKO ZULOAREN GAINETIK JAUZI EGITEKO, HOTS, ESTALTZEKO.

GEU ALDIZKARIAK behar zaituzte, EUSKARAK gu guztiok behar gaituen moduan.

GEU ALDIZKARIAren egoera ekonomikoa honakoa da:

2004ko balantzearen laburpena:

- Irteerak*: 80.000 inguru.
- Sarrerak: 71.000 inguru.

DEFIZITA: 9.000-10.000 euro artekoa.

(*oinarrizko-oinarrizkoari eusteko aurrekontua da)

EGOERA HONEN ARRAZOI NAGUSIAK

-AZKEN ORDUKO ARRAZOIAK: aurten Eusko Jauraritzatik 4.000 euro gutxiago eskuratuko ditugu -jatsiera orokorra izan da, euskarazko komunikabide gehienei eragin diena, baina gure kasuan kontuan hartu behar da Araban gaudela eta hemen zailagoa dela halako proiektuak normaltasunez aurrera ateratzea, halako zuloei aurre egitea- Kultura Saileko komunikabideen arloko dirulaguntza gisa (deialdi honetan aurten egitasmo gehiago egotean banatu beharra dagoela argudiatuz), beraz, iaz 11.500 euro lortu bagenuen aurten 7.500 euro baino ez dugu izango (oso dirulaguntza txikia ARABA OSOKO EUSKARAZKO HILABETEKARI BAKARRA IZATEKO). Ondorioz, aurreikusita geneukan 3.000-5.000 euro arteko hasiera bateko defizitari (*defizit honi aurre egiteko urte hasieratik abian jarritako plangintza ere ez da behar bezala atera eta ezin izan dugu inolaz ere kubritu) zulo berri hau gehitu behar diogu, hasiera bateko DEFIZITA ia BIKOIZTEN zaigularik, gure proiektua izugarri kaltetuz.

ETA HAU JUSTU ORAIN ETORRI ZAIGU, ARLO EKONOMIKOAN ASKO KOSTATA GUTXIENEO OREKA LORTUTA GENEUKAN MEMENTOAN.

BAINA LARRIENA EZ DA AURTENGOA, BAIZIK DATORREN URTEAN, ZER? AURTENGO DEFIZITA BIKOIZTU BAITAKIGUKE ZULOA ESTALTZEA LORTZEN EZ BADUGU... HORI DA KEZKA NAGUSIA!

-EZAGUTU BEHARREKO DATUAK: Geu aldizkariaren autofinantzaketa oso altua da (egun % 85ekoa): Arabako erakunde publikoen euskararekiko axolagabeziagatik (ikusi beherago datuak) nahitaezko helmuga izan da hau, eta azken urteotan egindako esfortzu itzelari esker autofinantzaketa igo ahal izan dugu. Hona hemen datuak dirulaguntzen portzentaiei begira:

-1999ko legegintzaldi aldaketa bitartera: dirulaguntzak aurrekontuaren herena ziren.

-Legegintzaldiaren aldaketaz geroztik gaur arte: %20

-Egun (azken orduko berri txarraren ostean): %15,55 (Eusko Jauraritz: %9 / Arabako Foru Aldundia: %5 / Udala: %1,55).

-GEU ALDIZKARIAK DEFIZITA IZATEKO ARRAZOI NAGUSIA:

-Bertako erakunde euskararekiko axolagabezia eta sekulako konpromiso eza (Foru Aldundia & Udala): Legegintzaldi aldaketarekin (1999) orotara 40.000 euro inguruko murrizketari aurre egin behar izan dio aldizkariak 2000 urtetik gaur arte, 1.999 urtera arte eskuratzen zuenarekin alderatuta, Foru Aldundiak eta Udalak, batetik, dirulaguntza txikitu eta, bestetik, publizitate-akordioak eten izanagatik.

-Urterik urte prezioak oro har gora (banaketa, inprenta...) eta subentzioak behera doaz.

Gu gure aldetik esfortzu handia egiten ari gara gure sarrera propioak handitu eta defizitik ez sortzeko, baina bidea ez da samurra izaten ari.

ALDIZKARIAK HARPIDEDUN BERRIAK BEHAR DITU!

EUSKO JAURLARITZAKO KOMUNIKABIDEETAKO DIRULAGUNTZEN EBAZPENA

iturria: EAEko aldizkari ofiziala

"Eusko Jaurlaritzak 3.8 milioi euro banatuko ditu euskarazko komunikabideen artean 2004ko jardunagatik: iaztik 33.570 eurotan handitu du diru kopurua: 2002tik, ordea, 312.698 eurotan gutxitu du, egitasmoak ugaritu diren arren" (berria-azaroak 16)

Zuen interesekoa izango delakoan, hona hemen aurtengo Kultura Saileko euskarazko komunikabideen arloko deialdiko dirulaguntzen banaketaren berri, arloka eta egitasmoka:

PRENTSA

A1. Egneroko prentsa. Euskararen esparru geografiko osoa

BERRIA EGUNKARIA 1.450.191

A2. Egneroko prentsa. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko prentsa

HERNANIKO KRONIKA 34.000

LEA-ARTIBAI eta MUTRIKUKO HITZA 83.824,19

OARSOALDEKO HITZA 67.848,59

TOLOSALDEKO HITZA 64.136,22

B1. Bestelako maiztasuneko argitalpenak. Informazio orokorreko aldizkariak

ALDAKETA 16 177.253,87

ASTEON, TELEBISTA ALDIZKARIA 165.303,35

HERRIA ASTEKARIA 20.000

ARGIA ASTEKARIA 2004 246.939,46

ZABALIK ASTEKARIA 90.503,32

B2. Bestelako maiztasuneko argitalpenak. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko prentsa

IRUNERO ALDIZKARIA 6.784,60

EL SOCIAL ALDIZKARIA 5.176,96

AKATZ ALDIZKARIA 4.191,80

ANBOTO, DURANGALDEKO ALDIZKARIA 27.391,19

ARETXAGAZETA-ZE BARRI, ARETXABALETA-ESKORIATZA eta LEINTZ GATZAGAKO ALDIZKARIA 13.021,45

GOIENKARIA, DEBAGOIENENKO ALDIZKARIA 36.941,80

BERRIGARA, BERGARA-ELGETA eta ANTZUOLAKO ALDIZKARIA 23.379,33

ARRASATE PRESS, ARRASATE eta ARAMAIOKO ALDIZKARIA 25.388,57

BALEIKE, ZUMAIKO ALDIZKARIA 4.398,27

AIKOR, TXORIERRIKO ALDIZKARIA 7.788,18

ARTZAPE, GETARIAKO ALDIZKARIA 3.550,34

BARREN, ELGOIBARKO eta MENDAROKO ALDIZKARIA 17.374,08

BEGITU, ARRATIA, ZEBERIO eta UBIDEKO ALDIZKARIA 8.286,61

BERTON, BILBOKO MAHATSERRIKO ALDIZKARIA 5.072,99

DANBOLIN, ZESTOAKO ALDIZKARIA 3.772,98

DROGETENITTURRI, ERMUKO eta MALLABIKO ALDIZKARIA 4.471,23

ETA KITTO!, EIBARKO ALDIZKARIA 24.474,38

GALTZAUNDI, TOLOSAKO ALDIZKARIA 11.579,12

GOIERRITARRA, GOIERRIKO ALDIZKARIA 14.291,47

IRUTXULO, DONOSTIAKO ALDIZKARIA 25.362,71

KARKARA, ORIOKO eta AIAKO ALDIZKARIA 6.898,38

GEU ALDIZKARIA. (OSO DIRULAGUNTZA TXIKIA ARABA OSOKO EUSKARA HUTSEZKO HILABETEKARI BAKARRA IZATEKO) 7.524,32

AIURRI, BETERRI-ARIZTONDOKO HAMABOSTEKARIA 11.377,65

UZTARRIA, AZPEITIKO ALDIZKARIA 7.102,44

UK, URIBE-KOSTAKO ALDIZKARIA 13.000

TXAPARRO, ZARAUZKO ALDIZKARIA 11.000

PRESTI, DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA 5.718,94

PIL-PILEAN, SORALUZKO ALDIZKARIA 6.631,82

NOAUA! USURBILGO ALDIZKARIA 9.127,99

MAXIXATZEN, AZKOITIKO ALDIZKARIA 11.971,75

KALAPUTXI, MUTRIKUKO ALDIZKARIA 4.406,60

TXINTXARRI ALDIZKARIA 20.133,32

OTAMOTZ ALDIZKARIA 4.000

B3. Bestelako maiztasuneko argitalpenak. Zientzia arloko, pentsamendu- eta zabalkunde aldizkariak (...)

EUSKAL HERRIKO NATURA ALDIZKARIA (Adeve) 12.838,31

NABARRA HILABETEKARIA 46.594,41

AIZU! ALDIZKARIA 52.169,71

BERTSOLARI ALDIZKARIA 24.150

ELHUYAR ZIENTZIA ETA TEKNIKA ALDIZKARIA 72.991,08

KARMEL 14.000

BAT SOZIOLOGIA ALDIZKARIA 20.472,88

EGAN ALDIZKARIA (Euskalerriaren adiskideen elkarte) 17.300

HEMEN, ERLIJO GOGOETARAKO ALDIZKARIA 12.296,52

JAKIN 45.079,54

OSTIELA! ALDIZKARIA 17.500

UZTARO, GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN ALDIZKARIA 12.500

ENTZUN MUSIKA ALDIZKARIA 15.960,97

AISIA BIZIZ ALDIZKARIA (URTXINTXA) 23.000

B4. Bestelako maiztasuneko argitalpenak. Haur eta gazte aldizkariak

IPURBELTZ 26.071,73

NANAI ALDIZKARIA (IKAS-BI) 23.000

GAZTEBERRI, GAZTE INFORMAZIO ALDIZKARIA 23.741,48

PIKA HILABETEKARIA 20.694,33

GAZTETXULO ALDIZKARIA 37.113,26

XIRIKIA, GAZTEON KAZETA, KOMIKIA eta DENBORA-PASAK 20.179

DEIALDIKO BESTE MULTZOAK:

EUSKARAZKO IRRATIAK, EUSKARAZKO TOKI-TELEBISTAK ETA EUSKARAZKO ON-LINE ARGITALPENAK.

GEUREKIN MENDIRA

ABENDUAREN 19AN

TXULATO (946 M) (*GOIZEKOA)

ARDURADUNA: XABI-629487540

IRTEERA: GOIZEKO 9.00ETAN LOVAINAN



GEUREKIN MENDIRA GAZTETALDEAREN

IV. IRTEERA

TALDEAK BAT EGITEN DU MENDIZALEEN OHITURAREKIN, URTE ZAHARRARI AGUR ETA BERRIARI ONGI ETORRI INDARTSUA EMATEKO

ABENDUAREN 31N

GORBEIA

IRTEERA: GOIZEKO 8:00ETAN BUS-GELTOKIAN; KOTXEZ

INFORMAZIOA: 945222153 (GEU ELKARTEA - JOSUNE)



KULTUR ERROTA

ABENDUAK 28

(asteartea)

ZAHARRAK BERRI XOU

Xabier Silveira, Jokin Uranga, Fredi Paia
Bat-batekotasuna
tokian tokikoari so

20.30ean, PARRALEN



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

IRAKURLE KLUBA

ABENDUAREN 16a,

(osteguna)

Anjel Erro, *Eta Harkadian ni*, Elkar 2002

Hikaatenoa (Pintore kalea,

13), 20:00etan

Dinamizatzailea: Iban

Zaldua idazlea

Hurrengo saioan

eztabaidagai izango den liburu:

Pedro Alberdi, *Satorrak baino lurperago*, Alberdania 2000

Urtarrilaren 27an, osteguna

GEU aldizkaria & GEU elkarte & Nabarralde

HERRI KIROLA & SOLASALDIA

ABENDUAK 14,

(asteartea)

IÑAKI PERURENA:

"50 ALTALDI, 50 GALDERA"

Montehermoso

Kulturunean,

Betolatza aretoan,

20.00etan

GEUK lehenagotik hainbat

galdera prestatzea

proposatzen dizue:

Historiaz, sentimenduez,

berarentzako Euskal

Herria zer den, bere lana,

bere kirola, kultura,

identitatea, euskara,...

geu aldizkari

Luma, aisialdiaren bertsio berria

Luma, hitzekin dibertitu eta ikasteko euskarazko denbora-pasen hilabetekaria da. 2002ko urtariletik plazaratzen da eta ARGIA astekaria kaleratzen duen Komunikazio Biziagoa da argitaratzailea.

Bi asmo ditu aldizkariak, jokoan bidez dibertitu eta ikastea. Aisialdiaz denbora-pasekin gozatzeaz gainera, gure ingurunearen, kulturaren, literaturaren eta abarren ezagutza orokorra jasotzeko edukiak lantzen dituen aldizkaria da beraz.

Lumarekin batera banatzen da hilerio Lum@txo, haur zein gaztetxoentzako gehigarria, eta saltokietan zein harpidetza bidez eskuratu daiteke 30_ren truke, kalean baino 6_ merkeago.

Aldizkaria ezagutza emate aldera, Luma promozio kanpaina egiten ari da eta GEU ALDIZKARIAren irakurleei aldizkariaren ALE 1 DOAN jasotzeko aukera eskaini nahi dizue.

Aldizkariarekin batera jasoko duzuen postalean datuak bete eta bidaltzea baino ez da egin behar, eta berehala jasoko dituzue etxean, euskarazko hitz-gurutatuak, letra zopak, lojika jokoak, hitz gezidunak eta abar biltzen dituen aldizkaria.

Gainera, postalean dagoen hitz gezidunarekin froga egin eta hitz guztiak asmatuz gero, 2 lagunentzako asteburu baten zozketan hartuko duzu parte.

Luma, hitzekin dibertitu eta ikasteko aukera eskaintzen duen aldizkaria.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

BERTSOLARITZARI

BEGIRA

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Kultur Ikastaroa

ALDABE gizarte etxean

2005eko urtariletik martxora

Asteartean, 19:30-21:30

EGITARAUA

- 1.- Bertsoa inprobisazioaren munduan
 - 2.- Hastapenetatik erromantizismo garaira
 - 3.- Erronkako bertsolaritza eta lehenengo bertsolari txapelketak
 - 4.- Frankismo garaiko bertsolaritza
 - 5.- Xabier Amurizaren ekarpena
 - 6.- Emakumea bertsolaritzaren historian
 - 7.- Bertsolaritzaren boom-a eta txapelketak
 - 8.- Bertso saioaren egitura
 - 9.- Gai jartzailetza eta epailetza
 - 10.- Bertsogintza urbano eta gaztea
 - 11.- Bertsolaritza erdalgunetan
- IRAKASLEA: Arabako Bertsozale Elkarte
MATRIKULA: 36,52 € / 18,26 €
(langabeentzat, 65 urtetik gorakoentzat, 18 urtetik beherakoentzat)
Matrikula epea zabalik duzu dagoeneko. Anima zaitez eta izena eman ezazu Aldaben urtarilaren 5a baino lehen

BERTSO-JAIALDIK ARABAN

ABENDUAREN 17an,

LUBERRI, bertso-lurra berritzen

Araian, Andra Mari Aretan

19:30ean bertso-saioa

Bertsolariak:

Miren Artetxe

Iñaki Viñaspre

Xabier Silveira

Jon Martin

Aurkezle: Naroa Sasieta

ABENDUAREN 28an,

LUBERRI, bertso-lurra berritzen

Legutión, Kultur Etxean

19:30ean bertso-saioa

Bertsolariak: Asier Otamendi, Zigor Enbeita,

Anjel Mari Peñagarikano eta Amaia Agirre

Aurkezle: Lierni Altuna

Antolatzaile: Legutioko Udala

21:30ean Gorbeialdeko TALDEKAKO

BERTSOLARI TXAPELKETA

URBINAN, "IÑAKI ENEAN" AFARIA.

Bertsolariak: Manex Agirre, Zigor Enbeita, Josu

Ormaetxea, Gillen Agirre, Iker Agirre, Andere

Arriolanbegoa, Markel Becares eta Hodei Lopez

de Arkaute.

Antolatzaile: Arabako bertsozale elkarte

URTARRILAREN 4an

Gasteizen. EUSKHARAN,

aste kulturalaren barruan

19:30ean Iparralde Gizarte Etxean

Bertsolariak: Sustrai Colina, Jokin Uranga, Jokin

Soroazabal, Oihane Perea

Aurkezle: Irati Lotina

AIARAKO BERTSO-ASTE

Abenduaren 17an

19:00etan, Lamuza Kultur Etxean

Oinez oin haurrentzako bertso-tribial erraldoia

Abenduaren 17an

20:30ean, Laudioko Gaztetxean

AIARAKO TALDEKAKO bertsolari txapelketa

AMURRIO-LAUDIO

Abenduaren 22an

19:30ean, Mintza Aretan

Berriketan taldearen Kantaldia

Atzoko eta gaurko bertso eta kantuak

Abenduaren 23an

20:30ean, BERTSO-AFARI BIZKAITARRA

Aretako Kultur Etxean

Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Etxahun Lekue, eta

Xabier Paia

Aurkezle: Juanjo Respaldiza

ANTOLATZAILE: Laudioko Bertso-eskola eta Arabako Bertsozale Elkarte

eskaintza berezia geu
aldizkariko harpidedunentzat

ikus. 34. orr.



Aisialdiaren bertsio berria

Hitz gezidunak, hieroglifikoak, letrazopak, argazki jolasak.
Hau dena eta gehiago aurkituko duzu Luman, euskarazko
denbora-pasa eta hitz jokoen hilabetekarian. Harpidetu zaitzez
eta hilerio jasoko duzu aukeratu-tako tokian 30 euroren truke.



Harpidetzak: 943 37 15 45

www.argia.com/luma

luma@argia.com

+ *lumatxo*
haurrentzako gehigarria



PARRAL

TABERNA

9. URTEURRENA

azaroak 30, asteartea
ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN

Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal,
Rafa Rueda, Mikel Valverde



abenduak 1, asteazkena
ANTZERKIA: "MONÓLOGOS DESCOMPUESTOS",
TRESTRISTESTIGRES TALDEA
Irene Bau, Jorge Santos, Justi Larrinaga

abenduak 3, ostirala
AFARI-MERIENDA eta KONTZERTUA: 'MAL DE OJO'

**ABENDUKO
EGITARAUA**
(asteartean)

14an:

ANGEL Y DIABLO
(musika etniko-
urbanoa)

21ean:

KONBO K-2-ALL
JAZZ taldearen
kontzertua

28an:

ZAHARRAK BERRI
XOU
Xabier Silveira, Jokin
Uranga eta Fredi
Paiaeren bertso saioa
(kultur errota- geu
elkartea)

Ekitaldi guztiak
8:30ean